Irunero

478.
2026ko azaroa

Ander Arrese, Oiasso Museoaren zuzendari berria: “Museoaren zuzendari izatera iritsi aurretik, izan dut Oiassorekin loturiko istorio bat lehenagotik ere”



Caser Residencial Gipuzkoa

Behar duzun
tokian eta unean zaintzen zaitugu
Zaintzaren kontzeptu berri bat, egoitzatik harago doana.

caser residencial

Caser Residencial Gipuzkoa
Etxean bezala, inon ez

aurkibidea

Bertatik Bertara - BIHAR kongresua 4

Kalean Bai - Real Unión 6

Sagardoaren Kultura Bidasoan 8

Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen XI Txapelketa 10

Uxoa elkarte soziokulturala 12

Ander Arrese 14

XVIII. Serapio Mugica Beka 20

2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileak 22

Bertso jarriak 23

Denbora pasak 23

Kirola - Alkain Bidasoa Irun 24

Kirola - Mugaz Muga triatloia 26

Beti Gazte - DJ Aimar 28

iGazte 30

Kultura 31



BERTATIK BERTARA: **BIHAR KONGRESUA** 04



KIROLAK: **MUGAZ MUGA TRIATLOIA** 26

irunero

Erredakzioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea eta maketazioa:
Maialen Sayans

Inprenta:
Antza

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

BEGI-BISTAN

900 GAZTE

900 gaztek baino gehiagok parte hartu dute Irunen errepideko arriskuez sentsibilizatzeko saioetan.

Ikasle eta irakasleek bide segurtasuneko esperientzia errealak eta testigantzak ezagutu dituzte zirkulazio istripuak prebenitzeko.

3.700 EUROTIK GORA

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak 3.700 eurotik gora bildu ditu Irunen egindako diru-bilketan.

Bildutako funtsak ikerketa onkologikora nahiz elkarteak eskaintzen dituen doako zerbitzuetara bideratuko dira.

13 ZABOR POLTSA

Kirola eta ingurumen zaintza uztartu dituzte Gainberri ikastetxeko ikasleek Bidasoa ibaian.

21 ikaslek eta 2 irakaslek 13 zabor poltsa atera zituzten ibaitik, Santiagotarrak elkartearen laguntzarekin urriaren 2an ordu eta erdiz egindako garbiketan.

12.600 BOTO

2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuak parte-hartze errekorra gainditu du, 12.600 boto baino gehiagorekin.

Aurtengo kopuruak nabarmen handiagoak dira iazkoak baino: botoena, % 26,8, eta parte-hartzaileena, % 27,4.

24 ARTELAN

'Chillida Mendiburu. Denboraren ispilu' erakusketa historikoa hartuko du Menchu Gal aretoak 2027ko urtarrilaren 10era arte.

Erakusketak bi artisten 12na pieza hautatu bildu ditu, guztira 24 artelan osatuz.

14 ETXEBIZITZA

Irungo Kale Nagusian babes publikoko 14 etxebizitza eraikitzeko urratsa egin du hiriak.

Irunek pauso berri bat eman du etxebizitza publikoaren eskaintza handitzeko, Kale Nagusiko 7. eta 9. zenbakien Xehetasun Azterlanaren hasierako onespenarekin.





BERTATIK BERTARA

HIZKUNTZA GUTXITUAK BIZIBERRITZEKO KONTAKIZUNAK ETA ELKARTASUNA IZAN DITU ARDATZ BIHAR KONGRESUAK

Irailaren 24an eta 25ean, Irun eta Hendaia mundu osoko hizkuntza gutxituen elkargune bihurtu dira BIHAR nazioarteko kongresuan. Euskararen eremu desberdinetako lau erakundek antolatuta (Garabide, Plazara, Soziolinguistika Klusterra eta Taupa), topaketak 40 hizkuntza-komunitatetako 200 ordezkari bildu ditu Bidasoako muga sinbolikoki gainditzeko eta elkarrengandik ikasteko asmoz. Gorane Ayesta Maidagan kongresuko koordinatzaileak jardunaldiek utzitako hausnarketak jakinarazteaz gain, abiatu berri den mundu mailako hizkuntzen federazioaren berri ere eman du elkarrizketan.

Zein da kongresu honen helburu nagusia?
BIHAR izena jarri diogun nazioarteko kongresu hau, BIHAR izeneko egitasmo baten barnean kokatu dugu. Egitasmo hau duela bi urte abiatu genuen helburu jakin batekin: hizkuntzak biziberritzeko kontakizunak eta argumentuak erdigunera ekartzea. Egoera gutxituan edo minorizatuta dauden hizkuntzek, badute edo eduki beharko lukete barne kontakizun bat hizkuntza horiek zergatik biziberritu behar diren argudiatzeko. Horietaz hitz egiteko egitasmo hau sortu genuen eta kongresu hau izan da azken emaitza.

Nolako parte-hartzea izan du kongresuak?
Ba egitasmoak oso harrera ona izan du, bai nazioartean eta baita Euskal Herrian bertan ere. Harrera horren erakusle da, adibidez, egun hauetan zehar kongresuan biltzea lortu dugun nazioarteko komunitate kopurua. Izan ere, euren hizkuntza biziberritzen ari diren 40 bat hizkuntza komunitate bildu gara hizlari, gonbidatu eta publikoaren artean. Guztira, 200 pertsonak parte hartu dugu; batzuek kongresuak Bilbon izandako abiapuntuan eta beste batzuek Irunen.

Nori zuzenduta dago?
Bilatu nahi izan duguna da kongresuek izan ohi duten kutsu akademikotik urruntzea eta ez izatea soilik akademiari zuzendutako egitasmo bat. Horretarako, aniztasuna bilatu dugu eskaintzan. Bilbon abiatu ginen eta lehenengo jardunaldia arratsaldez egin genuen, goizeko jardunaldietara etorri ezin daitekeen jendeari parte hartzeko aukera eskaintzeko. Irunen goiz eta arratsaldez eraman dugu aurrera kongresuaren muina esan dezakeguna, kutsu akademikoagoa duena. Kasu honetan hizkuntzen biziberritze prozesuarekin zerikusia duen jendea izan da interpelatu nahi izan dugun publikoa. Hor sartzen dira komunitateetan beraien hizkuntza biziberritzen ari diren aktibistak, militanteak, elkarteetako kideak, akademikoak, instituzioetako ordezkariak eta artistak. Gure iritziz herri kulturak eta arteak beren garrantzi berezia dute hizkuntzen eta komunitateen garapenean. Iluntzeetan, eskaintza artistiko soziokulturala eskaini dugu Borderline Fabrikan, Hendaian. Bertan, jolasaren bidez edo beste modu bereziren batean,

> **“Egitasmo hau duela bi urte abiatu genuen helburu batekin: hizkuntzak biziberritzeko kontakizunak eta argumentuak erdigunera ekartzea”**
> *Gorane Ayesta Maidagan, BIHAR kongresuko koordinatzailea*







> **“Badugu erronka partekatu bat: gure hizkuntza eta kulturei lekua eta arnasa emateko nahia”**
> *Gorane Ayesta Maidagan, BIHAR kongresuko koordinatzailea*

gazteak, familiak edo nahi duen herritar oro gure espaziora hurbilarazten saiatu gara, proiektu honekin harremanetan jar zitezen.

Zergatik aukeratu duzue Irun kongresuaren egoitzetako bat izateko?
Guretzat hau oso leku berezia da. Proiektu honen antolakuntzan lau erakundek parte hartu dugu: Garabidek, Plazarak, Soziolinguistika Klusterrak eta Taupak. Euskararen biziberritzetik gertu gauden erakundeak gara eta gu geu ere, batzuk hegoaldekoak gara eta beste batzuk aldiz, iparraldekoak. Beraz, kongresua hemen kokatu nahi izan dugu, euskal hiztun komunitatea bereizten duen muga bertan baitago eta horrek ere euskararen egoeran eragin nabarmena duelako. Guretzat oso garrantzitsua izan da Irun eta Hendaiaren arteko lerro honetara gerturatzea, nolabait muga hori apurtzen saiatzeko eta gure kongresua euskararen herri osoan garatzeko.

Nolako hizkuntzek izan dute ordezkaritza bertan?
Erronka bat geneukan: Ahal dela munduko hizkuntza komunitate ezberdin gehienetako jendea erakartzea. Adibidez, guk Garabideren bidez badugu harremana hego-ertamerikarekin eta afrika iparraldeko komunitateekin, baina egitasmo hau mundu osora zabaldu nahi genuen, kontinente guztietako komunitateak ekartzeko. Gure artean izan ditugu Ipar Afrikako amazighak, Zimbabweko komunitate bateko kide bat, Kurdistango bi pertsona kurdu, Zeelanda Berriko maoria den emakume bat, Australiako aborigenak, Kanadako British Columbia zonaldeko hainbat herrietako biztanleak, Haitiko kreoleak, Maputxeak, Ketxuak, Europatik galesak, okzitaniarrak eta katalanak; beraz, bai, mundu osoko komunitateen lagin bat bildu nahi izan dugu.

Hizkuntza gutxitu bakoitzaren ezaugarriak ezberdinak izan arren, erronka partekatu asko aurkitu dituzue?
Bai, kongresua antolatzerakoan buruan eduki dugun ideietako bat izan da hori, eta ostean, kongresuan zehar ere, baieztatu dugun zerbait da. Horrelako egoera batean aurkitzen garen hizkuntza komunitateek badugu erronka partekatu bat: gure hizkuntza eta kulturei lekua eta arnasa emateko nahia. Gero bakoitzak bere historia eta egoera sozioekonomikoa eta politikoa dauka eta erronkak ere ezberdinak dira. Batzuk gainera indarkeria handiko testuinguruetan bizi dira edo ez dute ofizialtasunik estatuaren partetik. Baina badago batasun hori gutxitutako hizkuntza biziberritzeko prozesu batean dauden hizkuntzen artean. Dena den, kontakizun negatiboa irauli nahi dugu, galeraren zentzu negatibotik aldendu eta biziberritzen ari diren hizkuntza bezala ikusteko. Hemen bildu garen hizkuntza guztien atzean badago horiengatik lanean ari den komunitate bat, hizkuntza berreskuratzeko.

Biziberritze hori bermatzeko belaunaldien arteko transmisioa funtsezkoa izango da, ezta?
Bai, belaunaldien arteko transmisioa etorkizuneko gakoetako bat da. Kongresuko kide batzuekin aipatzen genuen hizkuntza transmititzeaz gain, horien memoria zabaltzearen beharra. Horrela, belaunaldi berriek hizkuntza komunitate horiek bizitako egoerak ezagutu behar dituzte, zapalkuntza uneak tarteko, berriro errepikatu ez daitezen; horrelako gauzak ez baitira egun batetik bestera gertatzen. Garrantzitsua da horiek identifikatzea, ez ahazteko.

Kongresu honetan euskarak zer eman eta zer jaso du?
Euskal hiztun komunitateak erakusteko eta partekatzeko garaian, Euskal Herriak biziberritze prozesu propioa duela konturatu gara. Azkenean, frankismoaren ostean loraldi bat gertatu zen eta biziberritze prozesu hori oso emankorra izan zen, eremu askotara iritsiz. Guk gure kontakizun propioak dauzkagu eta erakusteko modukoak, baina ezin dugu espero gainontzekoek gure urrats berberak egitea. Guk gurea erakutsi dugu, beste komunitate batzuek eurena erakutsi diguten bezala, elkarrengandik ikasteko. Hala ere, bakoitzak bere testuinguruan eta errealitatean eman beharko ditu pausuak.

Behin BIHAR kongresua amaituta, zein izango da proiektu honen emaitza?
BIHAR kongresua amaitu da eta dagoeneko eman ditu bere fruituak, nahiz eta oraindik ez dakigun bertatik zer jaioko den. Kongresuan hizkuntzen federazioa aurkeztu dugu, euren hizkuntza biziberritzen ari diren komunitateen bilgunea izateko. Bertatik haztea da gure helburua, sare bat osatuz elkarrekin lan eginez eta etorkizun baterantz proiektatzeko, mundu mailan jarduteko eta eragiteko gaitasuna izanez.

kalean BAI

FUTBOLA ETA TOKIKO MERKATARITZA ELKARTUZ: REAL UNIÓNEK ‘ÁREA TXURIBELTZ’ AURKEZTU DU

Real Uniónek, euskararen sustapenerako Kalean Bai programara atxikitako klubak, ‘Área Txuribeltz’ egitasmoa jarri du martxan, Stadium Gal eta Irungo auzo bakoitzeko merkataritza txikia elkartzeko. Proiektua hobeto ezagutzeko, Igor Emery klubeko lehendakariak eta Hervé Etcheverry idazkariordeak ekimen honek saltokiei eskaintzen dien ikusgarritasuna zein auzoetan sortu nahi den lankidetza sarea bertatik bertara azaldu dute. Horrela, Santiago auzoko esperientzia pilotu arrakastatsuaren ondoren, 15 egunez behin auzo bakoitza etxeko partiduen protagonista bilakatuko da hainbat zozketa, sustapen eta ekintzaren bidez.

Nola jaio zen proiektu hau?
Igor: Batez ere Real Uniónek hirian bertan orain baino presentzia handiagoa izatea nahi genuelako jaio zen. Jakina, guk kluba Irungo eta eskualde osoko Kluba dela uste dugu, baina Irun berak dituen auzo ezberdinetan bizi diren gure zaleengana pixka bat gehiago gerturatzeak hegal horretatik jotzera garamatza. Eta nola egin hori? Auzoko bizilagunei zerbitzua ematen dien merkataritza txikiaren bidez. Egia da badugula gure masa soziala, badugula beste maila batean dagoen eta klubean oso presente dagoen babesle talde bat —zeinari oso eskertuta gauden—, baina urrats bat gehiago egitea zen kontua: merkataritza txiki horrengana ere gerturatzea eta guztiontzako mesedegarria izatea, bai klubarentzat, bai merkatarientzat eta baita gure zaleentzat ere. Eta horrela sortu zen: jendearengana gerturatzeko hausnarketa horretan, euren beharrak eta interesak zein izan zitezkeen ulertzen saiatuz, eta hortik aurrera Real Uniónekin aliantza bat bilatuz.

Beraz, merkataritza txikiaren eta kirolaren lotura uste baino zuzenagoa dela esango zenuke?
Herve: Bai. Zenbakiei buruz hitz egiten badugu, “familia txuribeltzaz”, familia zuzenaz, ari garenean, klubarekin egunerokotasunean lotura duten 3.000 familia baino gehiago gara. 10.000 herritar baino gehiago dira, eta zeharkako familia kontuan hartuz gero, askoz gehiago. Beraz, jende askorengana iristen gara. Bestalde, batzuetan ikusten ez dugun merkataritza txikia hartzen badugu, azterketa bat egin dugu eta hirian 2.500 enpresa baino gehiago daudela ikusi dugu. Hori guztia, azkenean, elkarrekin erlaziona dezakegun herritar multzo bat da. Beraz, guk zerbait eman genezakeela ikusi genuen, eta gainera merkatarien aldetik ere bazegoen eskaera bat Real Uniónekin elkarlanean aritzeko.

> “Baina Real Unióneko gure zaleak ez dira guztiak Santiagon bizi: Irun osoan barrena bizi dira, auzo guztietan”
> *Igor Emery, Real Unióneko lehendakaria*

Nola lan egin duzue proiektua martxan jartzeko?
Hervé: Bi hilabetez inkestak egin ditugu merkataritza txikiarekin, euren beharrak zeintzuk ziren eta Real Unióngandik zer espero zezaketen ulertzeko. Hortik, proiektuaren ideia nagusiak atera









genituen. Lehenik, Real Uniónek euren komunikazio tresnen bidez ikusgarritasuna eman ziezaiekeela esan ziguten. Ondoren, auzoei lotuta egotearen garrantzia ere helarazi ziguten. Gainera, etengabe gogoraraztzen ziguten Irungo saltokiak direla, baita ere (edo batez ere) Irungo auzo jakin batekoak. Eta, azkenik, klubak mugitzen dituen zenbakiak daude. Aurten, momentuz, 1.500 pertsonako batezbestekoa dugu partiduko; beraz, bide digitalaz gain, fisikoki ere jende asko mugitzen dugu. Ondorioz, hori izan zen abiapuntua eta hortik atera zen Área Txuribeltz proiektua.

Eta zer harrera izan du?
Igor: Auzoz auzo egiten ari gara, partiduz partidu, etxean jokatutako partiduen inguruan antolatuz. Santiagorekin hasi ginen eta orain Oinaurre eta Lapitzera goaz. Behin proiektua martxan jarrita, funtzionamendua eta interesa ikusten joatea da kontua, orain arte egindakoaz bestelako zerbait eskaintzeko, gauza ezberdinen bat.

Lehen auzo protagonista Santiago auzoa izan da. Zer moduz funtzionatu du?
Hervé: Bai, zuzen zaude. Esan genezake lehen urte hau proiektu pilotutzat har dezakegula, ezta? Santiago auzoaren aldetik oso harrera interesgarria izan da: hamar saltokik bat egin zuten proiektuarekin. Komunikazio kontu horretaz guztiaz gain, nola hartzen dute parte saltokiek? Bada, auzo bakoitzari bere txanda iristen zaionean, 15 egun ditu (etxean jokatzen den partidu batekin amaitzen direnak) eta zozketak egiten dira saltoki horietan. Bezeroentzat saski baten zozketa dago. Urte osoan zehar, gainera, Área Txuribeltz-eko saltoki guztietan denboraldiko abonamendu bat irabazteko zozketa dago. Ikusi duguna da jende mordoska batek izena eman duela zozketa horietan, ekimena ikusi dutela, alegia. Eta sare sozialetako ikusgarritasunari dagokionez ere, nahiko pozik daudela jakinarazi digute saltokiek.

Orain hasten den proiektua da, baina etorkizunean irautea du helburu, ezta?
Igor: Bai, proiektua auzo bakoitzaren eremuan ezagutzera ematen joan nahi dugu, auzo bakoitza egongo baita jardunaldi bakoitzean presente. Hirugarren jardunalditik aurrera hasi ginen, Mirandésen aurkako partidua igaro berritan, eta etxean jokatuko dugun partidu bakoitzaren atarian auzo bat egongo da hortxe, agerian. Harrera, esan bezala, handiagoa edo txikiagoa izango da auzoaren arabera. Santiago agian agerikoagoa izan daiteke, hemen ondoan dagoelako. Baina Real Unióneko gure zaleak ez dira guztiak Santiagon bizi: Irun osoan barrena bizi dira, auzo guztietan.

Proiektu hau gertuko merkataritza beherakada garaian dagoela dirudien unean sortu da.
Herve: Bai, azkenean ez baita Galera gerturatzea soilik. Igorrek esaten zuena baino gehiago da: ekosistema bat sortzea. Zailtasunak dituzten zein ez dituzten saltoki horietara jendea mugitzea, izan ere, badira oso ondo funtzionatzen duten saltokiak ere, baina ikusgarritasun handiagoa ematea da kontua, hirian eskaintza handia dagoelako. Beraz, jende gehiago elkarrekin erlazionatu eta uztartu badaiteke eta denok elkarrekin lan egitea lortzen badugu, hortxe izango dugu emaitza: Irun osoan ekosistema hori sortzea.

Jendea garaiz al dago oraindik ekimen honetara batzeko?
Hervé: Noski! Esan dizudan bezala, urte osoan zehar daude zozketak. 15 egunean behin abonamendu bat zozkatuko dugu. Beraz, proiektu honetara batu nahi duen saltoki orok erraz egin dezake bat ekimenarekin. Ekarpena oso oinarrizkoa da: 2,50 € hilean. Oso sinbolikoa da, lankidetza horretarako esparru bat zehazteko soilik balio duena. Baina bai, noski, bat egin nahi duen edonork eman dezake izena, baita ideiak dituen edonork ere, helburua gauza gehiago egitea baita. Finean helburua ekosistema da, ez da irabazi ekonomikorik bilatzen. Esparru bat sortzeko egiten dugu, ezer kostatzen ez bada ez baitago inplikaziorik. Beraz, urtean 30 € horiek bideratzea, aurrera egitea, gauzak sortzea eta futbola aitzakia gisa erabiltzea da kontua. Futbola gizarte tresna oso-oso garrantzitsua da; adineko jendearentzat zein gazteentzat, eta saltokientzat ere izan daiteke. Hortaz, eskura dugun aukera sorta hori pixka bat zabaltzea da asmoa, futbolak eskaintzen digun egokiera hori aprobetxatuz.

> “Futbola gizarte tresna oso-oso garrantzitsua da; adineko jendearentzat zein gazteentzat, eta saltokientzat ere izan daiteke”
> *Hervé Etcheverry, Real Unióneko idazkariordea*

Koldo Ortega, Sagardoaren Kultura Bidasoan liburuaren egilea:

«BIDASOAK LOTURA OSO ESTUA IZAN DU BETIDANIK SAGARDOAREN KULTURAREKIN»

Edari bat baino askoz gehiago izan da sagardoa, Bidasoko ibaiertzetako komunitateen memoriaren, kulturaren eta bizimoduen funtsezko zutabea izan baita. Koldo Ortegaren zuzendaritzapean argitaratutako "Sagardoaren Kultura Bidasoan" lan kolaboratiboak jakin-min historiko batetik abiatuta osatu du ondare partekatu hori berreskuratzen duen ahots eta testigantza bilduma. Elkarrizketa honetan, ikertzaileak proiektua nola jaio eta garatu den azaldu du.



Nola bururatu zitzaizun gai hau ikertzea?
Hondarribian bizi naizenetik, gauza batek nire atentzioa deitu izan du beti eta nondik zetorren ezagutzeko jakin-min handia izan dut beti: ea zergatik zuen Hondarribiko parrokiak "Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Mariaren Parrokia" izena. Oso berezia iruditzen zitzaidan. Madrilen teologia ikasi ondoren itzuli nintzen, eta beraz, gai horrek arreta handia eman zidan. Banekien Sagarrondoko izena duen beste eliza bat badagoela, Burgosen, Castrojerizen, baina oso gutxi dira izen hori dutenak. Ama Birjinaren izen ezberdinak dituzten elizak munduan gutxienez 3.000 direla badakit, baina Sagarrondokoak oso gutxi. Kuriositateak ukituta, gaia ikertzen hasi nintzen. Sagarrondo hitzak sagarrera garamatza, baita sagastietara eta horiek Bidasoa eskualdearekin izan duten loturara.

Egun sagardoaren inguruko kultura Hernani edo Astigarraga inguruan sustraituagoa dagoela diruen arren, Bidasoak ere sagarrarekin lotura estua duela esango zenuke?
Sagardo mundua, batez ere Gipuzkoan, oso berezia izan da betidanik. Pentsa ezazu duela 1.000 urte "Ipuskoa" izena agertzen den lehendabiziko dokumentu horretan 5 aldiz agertzen dela aipatuta "manzaneto" hitza, sagastiak, alegia. Beraz, argi eta garbi daukagu duela 1.000 urte gutxienez hemen jada bazirela sagastiak, sagarrak eta baita sagardoa ere. Gainera, kontuan izan behar da Gipuzkoa Euskal Herriaren erdian dagoela hain justu, Euskal Herriaren bihotza delarik eta inguruan dauzkan anai-arreba guztiak euskaldunak direla. Bidasoa ibaia, Nafarroan jaiotzen den arren, Txingudiko badia deituriko lekuan itsasoratzen da. Beraz, sagardoa baserritarren eta arrantzaleen edaria zen. Historian zehar eskualdeko baserri askotan egin izan da. Gaur egun sagardoak zein prezio duen pentsatu behar dugu, kasu batzuetan ur botilak sagardo botilak baino garestiagoak direlako. Horrek guztiak ulertzen laguntzen digu zer suposatu duen sagardoak Euskal Herrian eta, batez ere, ingurune honetan.

Beraz, urteen poderioz sagardoak eskualdean izan duen presentzian bilakaera bat izan dela esango zenuke?
Pertsonak gara gure bizitzan zehar eraldatzen garenak, eta beraz, sagardoarekin gauza bera gertatzen da. Bilakaera izugarria izan da, gutxienez datatuta dagoelako 1.000 urteko bilakaera. Baserritarrek sagardoa egiteaz eta edateaz gain, arrantzaleen kasuan ere, itsasora eramaten zuten kopuru handitan. Itsasontzietan kupeletan sartuta eramaten zuten Ternuara. Ikertua dago eskorbutoari aurre egiteko lagungarria zela. Liburu honetan ikerlariek lan handia egin dute sagardoaren eta itsasoaren arteko lotura azaltzeko.

> "Pertsonak gara gure bizitzan zehar eraldatzen garenak, eta beraz, sagardoarekin gauza bera gertatzen da"

Izan ere, sagardoak, lurrarekin duen loturaz gain, itsasoarekin ere badu harreman estua.
Sagardoaren bilakaeran kontuan izan behar dugu, esate baterako, XI. mendetik aurrera eta ia XVII. mendera arte, Hondarribiko parajeetan, txakolinarekin batera, sendo biziraun zuela. Gero, bigarren fase bat izan zen XVII. mendean artoa iritsi zenean. Baserritarrak lurrean landatutakoa aldatzen joan ziren, diru gehiago ematen zuenaren arabera. Beraz, artoaren iritsiera krisi momentu bat izan zen sagardoarentzat. Espainiako estatuak Ternuara arrantza egitera joateko eskubidea galdu zuen eta horrek era eragin zuen sagardoaren eskariaren beherakada. Gero ardoa ere etorri zen, sagardoa sagarraren odola den bezala, ardoa mahatsaren odola dugu. Ardoa ere oso preziatua izan da hemen beti eta sagardoa itsasoarekiko lotura galtzen joan zen esandako guztiaren ondorioz.



Urte luzez joan zen sagardoaren etekina poliki-poliki jaisten, baina XX. mendearen hasieran sagardoa egiteari ekin zitzaion berriro. Errepublikaren garaian, Irunen bertan, sagardotegi asko zeuden, hiriaren erdialdean eta baserrietan, auzo guztietan zeuden upeldegiak. Gauzak horrela, gai hori ere auzoz auzo ikertu dugu liburuan.

Emakumeak ere oso presente egon dira sagardoaren munduan, ezta?
Sagardoari buruzko ikerketa hasi nuenean, Hondarribia aldizkarian hasi nintzen artikuluak argitaratzen, duela 15 urte, eta beti emakumeen gaia oso presente izan dut. Adibidez, esan beharrik ez dago sagardoak euskararekin, bertsolariekin, baserritarrekin eta arrantzaleekin duen lotura. Baina beti izan dut kezka eta galdera hori buruan: zein izan da emakumeen papera? Kapitulu oso bat eskaini diogu liburuan emakumeen gaiari, ikertzaileen lan handiari esker. Izan ere, liburu honetan, nik idazle baino gehiago, koordinatzaile lana egin dut eta adituengana jo dut gai ezberdinak lantzeko. Lan horri esker jakin dugu 1612an Lapurdin emakumeek sagar zukua kontsumitzen zutela. Bestetik, Ana Galdos ikerlariak idatzitako testuak deskribatzen du nola duela 500 urte emakumeak arduratzen ziren sagarrak bildu, sagardoa ekoiztu eta banaketa egiteaz. Javier Sagarzazu margolariak ere bikain islatu zuen emakumeen sagardoarekiko lotura. Behin eta berriz agertzen dira historian zehar emakumeak sagardo munduarekin loturik.

> "Behin eta berriz agertzen dira historian zehar emakumeak sagardo munduarekin loturik"

Behin egindako lan guztia argitaratuta, nola zabalduko duzue liburua?
Liburua ofizialki Hondarribiko areto nagusian jaio zen, irailaren 25ean; bertan bataiatu genuela esan dezakegu. Ondoren, irailaren 27an Ola sagardotegian egindako Sagar Egunean ere aurkeztu genuen, uzta bilketaren inguruan egindako jaian. Bertara etorri zirenek liburua sagardoarekin eta sagar zukuarekin batera dastatzeko egokiera izan zuten. Liburuan datu historiko asko agertzen dira, adibidez, eskualdean sagardoarekin lotura izan duten baserrien zerrenda luzea. Bat aipatzekotan, Irunen oso garrantzitsuak izan ziren Beraungo tolarea, mihuraren aurkako borroka edo Meakako Aginaga baserrian oraindik badaukaten tolarea. Aranburu baserriari buruzko ikerketa sakona egin da, Oihana Recalderen Sagarrek proiektua aurkitu dugulako bertan. Hori adibide garbi bat da ikusteko sagardoa nola egiten zen, oraindik ere egiten dela eta ziur nago etorkizunean ere egingo dela.

Etorkizunean ikertu nahiko zenukeen beste gairik baduzu buruan jada?
Ez naiz geldirik geratuko. Horrela ibili naiz Hondarribira bizitzera etorri nintzenetik. Irunen Pio Baroja institutuan ere egin nuen lan. Esan beharra dut Irunen eta Hondarribian aurkitu ditudan artxiboek ikerketa egiteko erraztasun handiak eman dizkidatela. Hondarribiak, hiri bezala, asko eman dit: familia, lagunak, mendia, itsasoa. Orduan, nire aldetik ere zerbait itzultzeko beharrean ikusten nintzen. Hori eskertzeko nik egin dezakedana ikertzea da, oraindik ezkutuan dauden dokumentuak eta altxorrak azaleratzea. Beraz, aukeratzen ditudan gaietan modu sakonean murgiltzen naiz. Liburu bat sortzen duzunean, zure seme-alaba bezala hartzen duzu eta jada familia ugaria izan dudala esan dezaket. Orain arte Hondarribiko baserriak ikertu ditut beste ikerlari batzuekin batera, Hondarribiko kanpandorrea, klub nautikoa, futbolarena, ... Horietako gauza asko, egiten joan naizen heinean, Hondarribiko aldizkarian argitaratzen joan naiz, pixkanaka nire ekarpena egiteko, bizitzak eman dizkidan aukerak baliatuz.



HITZEN JOSKETA JOSTAGAI HARTUTA, BUELTAN DA EUSKAL HERRIKO HITZ GURUTZATUEN XI. TXAPELKETA

Paper zuriaren eta gelaxka beltzen artean ezkutatzen diren hizki gordeen puzzlea. Duela bi hamarkada pasatxo, euskarazko hitz gurutzatuekiko zaletasuna txapelketa bihurtu zen Irunen. Horrela jaio zen, 2007an, LUMA taldearen eskutik, Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Lehenengo Txapelketa. Aurtengoa txapelketaren 11. edizioa izango da eta azaroaren 21ean jokatuko da Irungo Palmera Montero zentroan, hitzak josiz jolastera ausartzen direnei horretarako aukera jostagarria eskainiz.

Txapelketa 2007an abiatu zen eta, gorabeherak gorabehera, hirian finkatutako hitzordu bihurtu da gaur egun. Hastapenetatik Joxan Elosegi irundarra aritu da hitz gurutzatuen prestaketa lanetan, gaur egunera arte: "Bagenekien beste lekuetan horrelako txapelketak egiten zirela eta pentsatu genuen egokia izango zela gurean ere horrelako zerbait egitea". 2015ean aldiz, txapelketaren antolaketan geldialdia etorri zen eta hainbatek amaiera zela uste bazuten ere, gaur egun aro berri baten lekuko da Irun. Duela bi urte Aitzondo Irungo Euskara Taldeak lekukoa hartu zuenetik, txapelketak indar berrituz eusten dio egutegiko hitzorduari azaroan, Beñat Muguruzak azaldu duenez.

Hasierako izpirituari eutsiz

Joxan Elosegi hitz gurutzatuen sortzaile irundarra txapelketaren lehenengo egunetik egon da egitasmo honen bihotzean. Bera izan da, eta gaur egun ere bada, lehiakideek ebatzi beharreko taula guztiak prestatzeko arduraduna. "Txapelketaren lehen ediziotik proba guztiak egun bakarrean bildu genituen eta oraindik ere halaxe da", azaldu du Elosegik. Lehen edizioaren data zehatza buruan ez badu ere, Joxan Elosegik argi du 2007ko larunbat goiz batez izan zela eta txapelketa bere sorreratik, "de facto", Euskal Herri mailako txapelketa bihurtu zela, sortzen lehenengoa izan baitzen. Lehen edizio haiek gogoratzean, ilusioa eta zalantza aipatzen ditu: "Ez genekien zenbat jendek erantzungo zuen, baina Luma aldizkarian 700-800 harpidedun genituenez, pentsatu genuen jendea inguratuko zela". Hain zuzen ere, lehen edizioan parte hartzaileak 28 inguru izan zirela gogoratzen du hitz gurutzatuen sortzaileak.

> **"Txapelketaren eskema gutxi gorabehera berdina izan da hasieratik gaur egunera arte, guztira, 3 edo 4 probarekin"**
> *Joxan Elosegi, txapelketan hitz gurutzatuen sortzailea*

LUMA taldeak 2015ean hitz gurutzatuen lehiari atseden eman ostean, Aitzondo Euskara Taldeak berreskuratu zuen lehiaketa. Beñat Muguruza, Aitzondoko kidea, pozik agertu da hartutako konpromisoarekin eta erantzunarekin: "Lekukoa nahiko modu naturalean hartu genuen, Joxanek berehalakoan baiezkoa eman ez zigun arren, ezaugarri duen bere estiloari eutsiz". Aurtengoa Aitzondo taldeak antolatutako hirugarren edizioa izango da. Muguruzak azpimarratu digunez, prestakuntza lanekin erraz moldatzen dira, Joxanek sortzen baititu probak eta hori da txapelketaren zailtasunik handiena. "Gu informazio mezuak bidaltzeaz, aurkezpen prentsaurrekoak egiteaz eta antolaketa kudeatzeaz arduratzen gara, jendearen parte-hartzea errazteko".

Elosegiren hitzetan, lehiaketaren data iritsi baino bi hilabete lehenago edizio berriko probak zeintzuk izango diren zehazten da: "Txapelketaren eskema gutxi gorabehera berdina izan da hasieratik gaur egunera arte, guztira, 3 edo 4 probarekin". Zehazki, aurtengo edizioak 4 atal izango ditu, hainbat berritasun tarteko. "Txapelketaren goizak ez du askorako ematen, joko eta zuzenketen

Argazkia: Txapelketaren aurreko edizioren bat. (Iturria: Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Txapelketaren antolakuntza). ↓







> **"Topikoa dirudi, baina Euskal Herri osotik etortzen da jendea lehiaketan parte hartzera"**
> *Beñat Muguruza, Aitzondo Irungo Euskara Taldeko kidea*

lana eskatzen dutelako", azaldu du Joxan Elosegik.

Txapelketaren parte-hartzea handitzeko ahaleginean, Beñat Muguruzak azaldu du iaz zerbait berezia egin zutela. Izan ere, "Egunean Behin" aplikazioan txapelketaren berri emateko joko bereziak prestatu zituzten. "Pentsatzen genuen horrek partehartzaileen igoera handia ekarriko zuela, baina ez zen hala izan", erantsi du Aitzondoko kideak. Euskara taldeak antolatutako azken edizioetako bakoitzean 30 lehiakide inguru erakarri izan dituzte. Muguruzak aipatu duenez, "topikoa dirudi, baina Euskal Herri osotik etortzen da jendea lehiaketan parte hartzera".

Profilari dagokionez, denetarik dagoela azaldu du Muguruzak: bada inguruan bizi den jendea delako gerturatzen dena; urteen poderioz sortutako komunitatearen parte dena; eta badira ere dena emateko prest eta txapelketa irabazteko asmoarekin hurbiltzen direnak, intentzio hori onartu ez arren. "Orokorrean, euskara ezagutzen duen eta hizkuntzarekin abila den jendea izaten da", gaineratu du Beñat Muguruzak. Beraz, parte hartzeko, jokoan oinarrizko mailarik behar ez den arren, irabazteko ezinbestekoa da ezagutza zabala, hitz gurutzatuetan oso abila denak lortuko baitu soilik txapela. Izan ere, Joxan Elosegik azaldu duenez, txapelketako definizioak eta azalpenak, aldizkarietan azaltzen diren hitz gurutzatuekin alderatuta, bestelakoak izaten dira; ez dira hain zuzenak: "hizkera enkriptatuagoa da, beraz, lehiakideak buruari eragin behar dio".

XI. edizioaren berritasunak

Aurtengo edizioak egitura berritua izango du. Goizeko 09:00etan hasita, lehiakideek hiru proba gainditu beharko dituzte finalera iritsi nahi badute. Lehen bi saioetan inor ez da kanpoan geratuko eta Joxan Elosegiren hitzetan "proba nahiko txikiak izango dira". Hasierako proba 10 x 10 laukiko taula samurra izango da eta atal horretan, berritasun gisa, ez da denbora neurtuko, akatsak eta zuzentasuna baizik. Joan-jina, txapelketako bigarren proba berriz, aurtengo berrikuntza nagusia da. "Ez da izango ohiko hitz gurutzatu edo hitz gezidun klasikoa; espiral formako joko berezia izango da". Bertan, norabide ezberdinetan irakurtzen dira hitzak. Hirugarrena finalaurreko 12 x 12 laukiko taula, kanporaketa proba izango da eta bertan erabakiko dira hiru finalisten izenak.

Finala izanen da, zalantzarik gabe, une ikusgarriena, aurten ere berrikuntzak dakartzana. "Aurreko proba guztiak mahaian jokatzen dira, publikorik gabe, baina finala beti jendaurrean egiten dugu, irekian", azaldu du Elosegik. Hiru lehiakidek soilik hartuko dute parte, jendaurrean, laukiko panel handietan. Zaratak eraginik ez izateko, kasko bereziak jantziko dituzte. Tarte horretan, gainerako ikusleek aretoan bertan taula bera erantzuten saiatuko dira, giro lasaian eta elkarrekin iritziak trukatuz. Beñat Muguruzak aipatu duenez, "ohituta ez dagoenarentzat, harrigarria izan daiteke finalistak paneletan nola lehiatzen diren ikustea, ariketa publikoa izango baita azkenekoa".

Festa ez da finalean amaitzen

Eguna borobiltzeko, txapelketan parte hartu eta lehia beste aldetik bizi izan dutenek Bidasoako EKT elkartean bazkaltzeko aukera izango dute. Izan ere, txapelketan sailkatutako lehenengo 10 lehiakideek bazkaria doan izango dute. "Egun polita izaten da eta jendea nahiko gustura itzultzen da etxera, beraz, probatzen duenak errepikatu egiten du", azpimarratu du Beñat Muguruzak. Bazkalostean, Irunabarreko bertsolariek Irungo Bertso Zaharrak emanaldi berezia eskainiko dute, hitzen festa kantu artean ixteko. Emanaldi hori bertara hurbildu nahi den edonorentzat dago irekia. "Bertsozaleak direnek, ezusteko handia hartuko dute bertso horiek aurkezteko ekitaldian; bertso asko ezezagunak baitira eta ezagutzea merezi du", ziurtatu du Joxan Elosegik.

Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen XI. Txapelketan izena emateko epea azaroaren 20ra arte dago zabalik eta txapelketaren webgunearen bitartez egin beharko da. Horrela, hizkuntzarekin jolasteko eta egun eder bat pasatzeko gonbidapena egina dago Irunen.

UXOA ELKARTE SOZIOKULTURALA: BELAUNALDIZ BELAUNALDI EMAKUMEEN TOPAGUNE IZATEN JARRAITZEN DUEN ELKARTEA

Uxoa Elkarte Soziokulturalak hiru hamarkada baino gehiago daramatza herriko zein inguruetako emakumeei ikaskuntzagune aberasgarria eta topagune benetan atsegina eskaintzen. Egoitza Irungo Gipuzkoa hiribideko 12. zenbakiko beheko lokalean dute, hiriko alderdi sozialistak utzitako eremuan, nahiz eta partidu politikoarekiko inongo loturarik ez duten. Datorren urtean 35 urteko ibilbide oparoa beteko duen erakunde herrikoi honen historiaz, gaur egungo eskaintza askotariko eta arrakastatsuaz eta etorkizunari begira dituzten erronka nagusiez sakon hitz egin dute Mari Cruz Martín elkarteko presidenteak eta Isabel Prieto presidenteordeak.

Uxoak elkartearen hasierako urratsak gogoratzean, garai hartako emakume askoren errealitate sozialari zein pertsonalari erantzuteko zegoen premia bizia nabarmendu digu. Mari Cruz Martínek gogoratzen duen moduan, “beno, hasiera batean emakumeok etxetik kanpo zer egiteko handirik ez genuenez, gauza berriak ikasi nahi zituztenak biltzeko sortu zen elkartea”. Isabelek, berriz, zehaztasun handiagoz gogoratzen du nola sortu zen elkartearen lehenengo hazia duela hiru hamarkada baino gehiago, bertan parte hartu baitzuen: “Beti eta nagusiki emakumeari laguntzeko eta babesa emateko sortu zen”. Kontua da fundatzaile gehienek soilik beren etxean lan egiten zutela eta seme-alabak handitzen joan zirenean, etxetik kanpo zerbait egiteko beharra sentitu zutela. “Orduan elkartea osatu genuen bazkide gutxi batzuekin”, esan digu Isabel Prietok. Lehendakariordeak azpimarratu duenez, oinarrizko kultura maila zuten bazkideak ziren; “beraz, egin genuen lehenengo gauza kultura orokorreko klase bat sortzea izan zen, jada gaur egun existitzen ez dena”.



Hasierako urte haietan emandako kultura orokorreko klaseak oso garrantzitsuak izan ziren beren garaian emakume haien ahalduntzerako, nahiz eta gaur egun gizartearen bilakaerari esker jada existitzen ez den jarduera mota bat izan. Denborak aurrera egin ahala, ordea, elkartearen helburu zein eskaintzetan bilakaera oso zabala eta esanguratsua gertatu da. Isabelek aipatzen duen moduan, “aldaketa oro har handia izan da, hasieran egiten zen gutxitik eta gutxika-gutxika jarduera berriak gehitu baitziren, hala nola joskintza edo eskulan tailerrak”. Gaur egungo egoerari zein kideen eskaera berriei buruz, Mari Cruzek azaldu du joera nola aldatu den urtez urte: “Orain askoz jarduera gehiago ditugu, jendeak denbora gehiago eskaintzen diolako ariketa fisikoa egiteari”. Lehen jarduera kulturalak ziren eskatuenak, baina hori aldatu egin da.

110 bazkideko komunitatea

Gaur egun, Uxoak 110 bazkide inguruko komunitate sendo eta leiala dauka eraturik Irunen. Nahiz eta egun kide guztiak emakumeak izan, elkartea guztiz irekita dago gizonentzat ere, ateak inori itxi gabe. Mari Cruzek zehaztu duenez, “duela bi urte bi gizon bazkide ere izan genituen, baina kontua da gizonak azkarrago nekatzen direla, nire ustez”. Gaur egun antolatzen duten jarduera kopurua benetan zabala zein oparoa da eta elkartearen lokaleko ordu gehienak erabat beteta dituzte aste osoan zehar. Gorputza mugitzeko eta osasuna zaintzeko proposamenen artean pilatesa, zumba, tai ji eta sevillanak daude. Aurten, gainera, aulkian eserita egiteko tai ji klase berriak jarri dituzte martxan, eta erantzuna ezin hobea izaten ari da, Mari Cruzek dioen bezala: “jendea oso pozik dator, batez ere adineko jendea, oinez ibiltzea eta hankak mugitzea gehiago kostatzen zaigunok asko eskertzen dugu, gure gaitasunetara egokitutako jarduera delako”.

“Klaseetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza da elkartekide egitea, batez ere doako jarduerak aprobetxatu ahal izateko”
Isabel Prieto, Uxoa elkarte soziokulturaleko lehendakariordea



Ariketa fisikoaz gain, sormenak eta lan artistikoek ere leku guztiz nabarmena betetzen dute elkartearen eguneroko programazioan. Eskulanen tailerrak eta kakorratz saioek ikaragarrizko arrakasta izan dute azkenaldian kideen artean. Isabelek berak bere esperientzia pertsonala kontatu du ekimen honek piztutako poza adierazteko: «Ni orratz bat nola hartu ere ez zekien horietakoa nintzen lehen eta orain nire zaletasunetako bat bihurtu da”. Horrez gain, adimena eta burua aktibo edukitzeko memoria lantzeko tailerra ere urtero-urtero lepo betetzen da; Mari Cruzek, tailerraren gidaria denak azaldu duenez, “hartu ditzakedan baino ikasle gehiago ditut, ez garelako kabitzen, lekua txiki geratzen zaigulako”.

Hala ere, Uxoa elkartearen barneko harribitxietako bi antzerki taldea eta berriki sortutako abesbatza dira. Antzerki taldea duela 13 urte jarri zen martxan, garai hartan inguruko elkarteetan halakorik ez zegoenean. Talde hau guztiz autodidakta da eta Mari Cruzek azpimarratu duen moduan: “Antzerkia duela 13 urte hasi genuen eta, egia esan, arrakasta handia du, egoitza eta elkarteetara gure lanak aurkeztera joaten garelako, oro har gutxi edo ezer ez dugulako kobratzen”. Isabelek nabarmendu du, “barrea eragiteko egiten dugu antzerkia, penak jada bakarrik etortzen direlako”. Gainera, irakaslerik gabe egiten duten zerbait da; “gu gara dena, atrezzoaren zuzendariak, erabat autodidaktak”, aipatu du Isabel Prietok. Abesbatza berriz, oso sinplea da duela gutxi hasi direlako ekintza berriarekin.

Beste alde batetik, elkartearen egoitzari zein kokapenari dagokionez, Irungo erdialdean egoteak logistika asko errazten duen arren, herriko auzo guztietatik eta inguruko udalerrietatik hurbiltzen diren emakumeak dituzte Uxoan. Isabelek azaldu duenez, “nahiz eta erdialdean egon, Behobiatik, Anakatik, Hendaiatik eta Hondarribitik dator jendea, leku askotatik”. Bazkide izatearen garrantziaz galdetuta, Isabelek argi utzi du “klaseetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza da elkartekide egitea, batez ere doako jarduerak aprobetxatu ahal izateko”.

“Ideala litzateke Zuzendaritzan jende berria sartzea, elkartera ideia berriak ekartzea gustatuko litzaigukeelako”
Mari Cruz Martín, Uxoa elkarte soziokulturaleko lehendakaria

Berdintasunarekiko konpromisoa

Horrez gain, Uxoak berdintasunaren aldeko borrokan konpromiso handia erakutsi du beti, azaroaren 25ean eta martxoaren 8an hitzaldiak eta proiekzioak antolatuz. Mari Cruzek dioen bezala, “gainera konturatu zaitez hemen Irunen egin ziren lehen elkarteetakoak garela, hau da, urte asko daramatzagula honetan”. Berdintasun arloko bileretara joateaz Tina kidea arduratzen da, Isabelek aitortzen duen moduan: “Horrelako ekintzak gainerako elkarteekin partekatzen ditugu, batez ere berdintasun eta genero indarkeriarekin loturiko gaiak. Beraz, urte luzez egin bezala, aurten ere lantzen hasiak dira azaroaren 25aren inguruan, Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren inguruan antolatuko dituzten ekintzak.

Datorren urteari begira, Uxoak 35 urte beteko ditu elkarte gisa sortu zenetik. Urteurrena ospatzeko asmoei dagokienez, Isabelek “pazientzia pixka bat izatea eta itxarotea” eskatzen du oraindik, baina Mari Cruzek gogoratzen du 25. urteurrenean “dena topera ospatu genuela eta guk geuk egindako gauzekin apaindu genuela dena lorez beteta”. Etorkizunari begira duten erronka nagusia, ordea, Zuzendaritza Batzordean belaunaldi arteko erreleboa lortzea da. Mari Cruzek argi uzten du beren nahia: “Ideala litzateke Zuzendaritzan jende berria sartzea, elkartera ideia berriak ekartzea gustatuko litzaigukeelako”. Halaber, urtero ezartzen duten kuota baxuari eusteko hautua berretsi dute, dirulaguntzarik jaso gabe ere kideen beharrei erantzuteko.





ANDER ARRESE

Ander Arrese, Oiasso Museoaren zuzendari berria:

“OIASSO MUSEOAK ETENGABE EGON BEHAR DU BERRITZE BIDEAN”

Aizpea Goenagaren lekukoa hartuz, Oiasso Museoak aro berri bati ekin dio Ander Arrese zuzendari berriaren eskutik. Arresek profil tekniko eta arkeologiko sendoa dakar kargura, alorrean esperientzia zabala izateaz gain, aurretik ere gertuko lotura izan baitu museoarekin, Arkeolan Fundazioarekin eta FICAB jaialdiarekin. Zuzendari berriak eskarmentu handiko lantaldearen martxari jarraipena emateko konpromisoa hartu du, betiere museoa etengabeko berrikuntzan, dibulgazioan eta herritarrekiko elkarlanean bultzatuz.

Ander Arrese Vitoria

Ander Arrese Vitoria EHUn Historian lizentziatua (2004) da eta ibilbide luzea du arkeologiaren alorrean, bai ikerketan eta bai lurreko zein urpeko indusketetan ere. Hainbat urtez autonomo gisa lan egin ondoren, 2011n Suhar Arkeologia S.L.U. enpresa sortu zuen. Urte hauetan guztietan, aztarnategi nabarmenak zuzendu ditu —hala nola Murumendiko kastroa, Jentilbaratza zein Gazteluberri gazteluak eta Aitzorrotz 2 leizea— eta dibulgazio arloan ere lan emankorra egin du, erakusketak, bisita gidatuak eta ikus-entzunezkoak ekoiztuz.

Nola iritsi zara Oiasso museoko zuzendari izatera?

Azken batean, badakizuen bezala, Aizpea Goenagak, aurreko zuzendariak, jubilazioa hartu du. Beraz, bete beharreko zulo bat zegoen hemen, museoan, esleipena daukan Arkeolan Fundazioari dagokionez. Oraingoan, profil arkeologikoagoa bilatzen zuten. Aizpeak zuen gaitasun dibulgatiboa, antolaketa gaitasuna, izaera eta lanerako dohaina ez ditugu berdinduko, baina gauza da profil teknikoagoa eta arkeologikoagoaren bila zebiltzala. Nik urte asko daramazkit arkeologian. Arkeolanekin askotan lan egin dut eta konpetentzia ere izan naiz. Beti esaten dudan bezala, arkeologian ez gara asko, baina ezta gutxi ere, eta badugu elkarren artean saretutako hartu-eman bat. Beraz, aurretik ezagutzen nindutenez, proposamena egin zidaten, indusketaz gain, dibulgazio eta zabalkunde aldetik ere esperientzia badudalako. Erakusketak antolatu izan ditut, historiaurreari eta Erdi Aroari buruzkoak, adibidez. Alde horretatik, iruditu zitzaien aukera ona nintzela. Bestalde, FICABekin ere izan dut hartu-emana aurretik, urpeko arkeologian jardun dudanez, urpeko filmak aurkeztu izan ditudalako bertan. Historiarekin lotutako dokumentalak egin ditut, horiekin FICABen parte hartuz. Beraz, Museoaren zuzendari izatera iritsi aurretik, izan dut Oiassorekin loturiko istorio bat lehenagotik ere. Horrek hona etortzeko baldintzak bildu ditu.

> “Nik urte asko daramazkit arkeologian”

Zure esperientzia eta ibilbidearen ostean, nolakoa izan da museoaren zuzendaritza kargura egokitzeko prozesua?

Orain arte behintzat izan dudan sentsazioa da nire aurretik egon denak, Aizpeak, martxan utzi duen bagoi batera igo naizela. Aldapan behera bizikletaz zoazenean bezala, pedalei eragiten diozunean baina askotarako balio ez duenean, bizikleta bakarrik doalako berez aurrera. Momentu bat iritsiko da non pedal horiek indarra beharko duten martxan jarraitzeko. Baina sentsazioa da oraingoz bere martxan doan zerbaiten gainean jarri naizela eta pedalak ematen hasi naizela. Badakidana da oso ondo engranatutako lantaldea dela, lanerako eta sormenerako gaitasun handia duena. Bakoitzak bere lana eta esparrua oso ondo ezagutzen ditu. Nabari da teknikariek eskarmentu handia dutela eta urte luzeak daramatzatela lan hau egiten eta gainera pasioz egiten dutela. Beraz, nire alde daude osagai guztiak.

Oiasso museoan zeintzuk dira zuzendariaren zereginak?

Esan dezakegu, denaren gainean egotea dela nire zeregin nagusia. Orokorrean, dena gainbegiratu behar dut, proiektu eta ekintza guztiei onespena emateko, baina neure ikuspuntua gehituz, noski. Esan dizudan bezala, hemen lan fina egiten duten teknikariak daudenez, gainbegiraketa hori egitea errazagoa da. Beste aldetik, museoan, enpresa batean bezala, kudeaketa bat gauzatzen da. Diru sarrerak eta diru irteerak daudelako, eskatu beharreko eta zuritu eta justifikatu beharreko dirulaguntzak daude, dirulaguntza horietan agintzen diren gauzak betetzen direla ziurtatzeaz gainera. Beraz, nire zeregina kudeaketa orokor bat egitea da, enpresaren zatia eta zabalkundearena uztartuz. Lan horretan sartu beharko genuke aurrera begirako berrikuntzak egitea, hau da, etortzen zaizun hori hartu eta zure ideiak horri gehitzea. Geldirik dagoen zerbait izan ordez, zure proiekzioa gehitzeko, eta noski, teknologia berriak baliatuz, erakusketa berriak proposatuz eta ideiak garatuz, ohiko martxan jarraitu bitartean.

> “Badakidana da oso ondo engranatutako lantaldea dela, lanerako eta sormenerako gaitasun handia duena”

> “Beste aldetik, museoan, enpresa batean bezala, kudeaketa bat gauzatzen da”

Gaur egun nolako egoera bizi du museoak?

Nik uste dut gaur egun arte museoak izan duen ibilbidea ikusgarria izan dela, jende askorengana iristen delako eta indar handiz, gainera. Zabalkunde handi bat ematen dio ondare arkeologikoari eta baita ondareari orokorrean. Ni oso txundituta nago Irunen duen erakarmenarekin. Ekintza asko proposatzen diren arren, jende askok erantzuten du. Alde horretatik, garbi dago urte luzetan egin dela lan handia hori lortzeko, eta beraz, jendeak ondo ezagutzen du museoa jada, eta erne dago beti, museoak zer proposatuko duen zain. Aurretik museoarekin izan dudan loturaren ondorioz eta hemen egin ditudan ekintzetan egiaztatu ahal izan dudanez, museoak zerbait proposatzen duen bakoitzean beti da handia erantzuna. Museoaren zabalkundea eta irisgarritasuna izugarriak iruditzen zaizkit. Baita museoaren eraikuntza bera ere, azken garaietan gainera, berritu dena. Gauzak horrela, instalakuntza berria da eta teknologiari esker txundigarria. Niretzat beti lortu behar da oreka teknologiaren eta helburuaren artean, teknologia besterik gabe txertatzea ez baita aberasgarria, erakutsi nahi huts bat izan daiteke. Museo honen kasuan aberasgarria dela uste dut, 3Da eta betaurreko birtualak erabiltzen diren lekuetan aztarnategiaren ulermenera bideratuak daudelako. Berrikuntza

> “Nik uste dut gaur egun arte museoak izan duen ibilbidea ikusgarria izan dela, jende askorengana iristen delako eta indar handiz, gainera”











“Erakusketa berriak antolatzeko lanean ari gara beti”

horiek museoari beste maila bat eman diote. Termen bisita dibulgatiboki oso ondo diseinatua dagoela uste dut, eskura dauden ikus-entzunezko erreminta birtualak egokiak dira eraikuntzaren zabaltze berria ondo ulertzeko. Aldaketa horrek museoari gorakada bat eman dio, bai erakusketa bezala, baita bisitari kantitateagatik ere, nahiz eta kopuruak ez nauen gehiegi obsesionatzen. Gure helburua beti da zabalkundea ahal den eta urrutien iristea, batez ere gaur egun bizi dugun gorakada garai honetan, instalakuntza eta baliabide berriei esker.

2026ko uztailean museoak 20 urte bete ditu, kanporako lana eginez, baina baita kanpora begirakoa eginez ere, ezta?
Hori da, bertako jendearen parte-hartzea ere sustatzen du, Dies Oiassonis edo bertan antolatzen diren tailerrekin, ikastaroekin edo hitzaldiekin. Parte-hartze hori asko sustatzen da jende irundarraren artean eta hori ere inguruan gehiago zabaldu nahi dugu. Iraunarazi beharreko oso balio garrantzitsua da hori.

Museoak badu urteen poderioz finkatutako programazio bat. Esaterako, azaroan FICAB jaialdiaren edizio berria antolatuko du. Hortik aurrera, berrikuntzarik gehitzea aurreikusten duzue?
Erakusketa berriak antolatzeko lanean ari gara beti. Gordailuarekin dugun kolaborazio akordioaren harira, museoan leiho berri bat jarri dugu, bertan Gordailuko piezak ikusgai jartzeko, konexio hori eduki nahi baitugu. Izan ere, Gordailua Irunen bertan dagoen beste eraikin bat da, non Gipuzkoako arkeologia materialak gorde, zaharberritu eta kontserbatzen diren. Horregatik, atzo bertan bitrina berri hori jarri zen museoaren igoerako aldapan. Bestetik, erakusketa egonkorreko eremutik kanpo egingo diren erakusketak prestatzen ari gara. Bertan erakusketa berri bat antolatu nahi dugu datorren urterako. Beraz, orain FICAB jaialdia, erakusketa berriak eta Dies Oiassonis jaialdia antolatzen joango gara, aldiberean tailerrak, hitzaldiak eta beste gauza asko eginez.

Museoko lantaldearen parte izatera pasa zarenetik, baduzu museoaren barnean bereziki atsegin duzun leku edo piezarik?
Egia esan, museo honetako hainbat materialekin hartu-eman berezia izan dut. Nik bere momentuan Jentilbaratzako gazteluko erakusketa antolatu nuen. Erdi Aroko gaztelua izanda, azpian dagoen kobazuloan agertutako eraztuna oso ezaguna da arkeologia munduan. Egun, Oiasso Museoaren erakusketa iraunkorraren parte da, eta beraz, han erakusteko eskaria egin behar izan nuen eta utzi zidaten. Gauzak horrela, oso oroitzapen ona dut museoari eta bertako materialei dagokienez. Gero, urpeko arkeologiarekin dudan loturari dagokionez, museoan ikusgai dauden Higerreko brontzeak pieza zoragarriak iruditzen zaizkit.



Higerreko brontzeak kutxa batean zihoazen aplike moduko batzuk dira, hainbat jainko eta jainkosarenak, Higerreko badian aurkitu zirenak, beste hainbat material erromatar bezala hemen ikusgai daudenak. Horretaz gain, instalazio berrietako indusketa bera, noski, berregin delako eta elementu eta material berriak agertu direlako. Baina termak dira, jakina, museoaren zati ikusgarriena.

Etorkizunari begira, zer erronka ikusten dizkiozu museoari?
Oiasso Museoak etengabe egon behar du berritze bidean. Egia da, gorakada momentu batean gaudela instalakuntza berriak inauguratu ditugulako eta horiek, inbertsioaren bidez, denboran irauteko egin dira. Horrek ez du esan nahi museoan beste gauza batzuk berritu behar ez direnik. Beraz, beti, pausoz pauso bada ere, azpiegituran urtetik urtera berrikuntzak egiteko beharra egongo da. Eta gero, erakusten diren materialen aldetik, agertzen diren material berrietara adi egon behar dugu, erromatar garaiari eta arkeologiari buruzko ikerketa gelditzen ez den zerbait baita. Ikerketek ematen duten emaitzaren arabera erakusketa iraunkorra berritu, aldatu eta ondorio berrietara iritsi gaitezke. Erakusketa bizirik iraunaraztea garrantzitsua da, bestela, ikerketa aurreratu arren, zabalkunde aldetik atzean geratuko ginatekeelako. Ikerketa iraunkorraren ondorioak ondo islatzen jakin behar dugu, zabalkunde proposamen berriak egiteko eta ideia berriak gehitzeko gai izanik museoak biltzen dituen arlo guztietan.

“Gero, urpeko arkeologiarekin dudan loturari dagokionez, museoan ikusgai dauden Higerreko brontzeak pieza zoragarriak iruditzen zaizkit”



IRUNGO BASERRI ETA ERROTEN HISTORIA AZALERATZEN: JUANMA SARASOLA MURGIA, SERAPIO MÚGICA BEKAREN IRABAZLE

Juanma Sarasola Murgiak Serapio Múgica Beka irabazi du Irungo baserri, borda, errota eta burdinolen bilakaera historikoa ikertzeko proiektuari esker. Duela 15 urte zaletasun gisa hasitako lan honek Erdi Arotik gaur egunera arte hiri inguru zein mendietan egon ziren eraikinen historia eta argazkiak bildu nahi ditu. Elkarrizketa honetan, informazioaren puzzlea artxiboko dokumentuekin eta hainbat bidelagunen laguntzaz nola osatu duen azaldu du irundarrak. Horrez gain, herritarrei dei egiten die, 2027ko irailera arte zabalik dagoen epean zehar, etxeko argazki edo testigantza zaharrak ikerketara biltzeko laguntza eman dezaten.

Nolatan erabaki zenuen beka deialdi honetara aurkeztea proiektua?
Beka deialdira aurkeztea izan zen proiektuaren azken txanparako sarbidea. Urte asko eman ditut ikerketa honetan, modu afizionatuan. Lana modu txukun batean argitaratzeko beharra ikusten nuen. Bi aukera nituen, autoeditatzea, aurreko liburuarekin, “Moskuko Urrea” lanarekin, alegia, egin nuen bezala edo bestela instituzio edo argitaletxe baten bitartez. Bekara aurkezteko memoria prestatu nuen.

Hiriko baserri, borda, errota eta burdinolak ikertuko dituzu, ezta?
Bai, aspaldi hasi nintzen, zaletasun bezala, inguruan nuena arretagai gisa hartzen eta ikertzen. Nik etxetik hurbil baserri handi bat nuen lur askorekin eta konturatu nintzen bertan, ez hain aspaldi, 50 metroko erradioan 20 bat baserri izan zirela, San Miguel eta Anaka eremuan. Aitaren aldetik Hondarribitarra naizenez, bertan baserrien inguruan egindako ikerketa txukun bat dagoela ikusi nuen, baina Irunen aldiz ez. Egia da, Josetxo Riofrio Aizpuruak ateratako Irungo Baserriak lana badagoela eta lan oso txukuna egin zuen arren, argazkiak ditu soilik. Hondarribikoa eta beste herri batzuetakoa ikusita, Irunen gai honetan gehiago sakontzeko beharra ikusi nuen. Horrela, pixkanaka artxiboan kontsultak egiten hasi nintzen. Horretaz gain, Anaka Kofradian dabilen Agustin Moratek auzo horretako informazioarekin asko lagundu dit. Beraz, batarekin eta bestearekin pixkanaka informazioaren puzzlea osatzen hasi nintzen duela 15 urte. Zenbait pertsona ezagunekin bilera egin nuen liburua ateratzeko asmoa aurkezteko eta urte hauetan hainbat bidelagun izan ditut informazioa pilatzen laguntzeko. Azken bi edo hiru urteetan argazkigile baten laguntza ere izan dut gaur egun geratzen diren baserrien argazkiak ateratzeko. Azkeneko txanpa honetan, Iñaki Bengoetxea, Ola sagardotegiko nagusi zena, batu zait, mendiko borden ikerketa egiten laguntzeko, erabat desagertu ez daitezen. Denetik izan dut bide luze honetan, aberasgarria izan da, eta beraz, ea emaitza txukuna izatea ere lortzen dugun.

> “Aspaldi hasi nintzen, zaletasun bezala, inguruan nuena arretagai gisa hartzen eta ikertzen”

Argazkia: Irungo hirigunearen ikuspegia, 1902 eta 1911 artean Ibaietako gainetik ateratakoa. (Iturria: Irungo Udal Artxiboa. Erreferentzia zk.: 57712. Gorka Alvarez Aranbururen jabetzakoa da argazki originala). ↓







Nola moldatzen ari zara Erdi Arotik gaur egunera arteko bilakaera ikertzeko? Denbora tarte luzea baita.
Gaur egun dagoena jakitea errazagoa da, baina atzera egin beharra zegoen oraindik badagoenaren eta jada ez dagoenaren historia ikertzeko. Kasu batzuetan Erdi Arora arte jo beharra dago eraikinaren sorrera dokumentala aztertzeko, nahiz eta noski, beste asko XVII. mendearen ostean sortu ziren. Beraz, ahalik eta urrunen iristen saiatu naiz. Gainera, kontuan izan behar da baserri batzuek bi eta hiru izen ezberdin izan dituztela historian zehar, eta orduan zaila dela Irunen guztira zenbat baserri izan diren zehaztea, baina nik kalkulatzen dut 400 inguru izango zirela ni aztertzen ari naizen epeetan. Noski, baserrien funtzioa asko aldatu da. Batzuk desagertu egin dira eta beste asko bizileku soil izatera igaro dira, asko jota, baratze txiki batekin. Badira baserriak urbanizazioak ia osorik irentsi dituenak, adibidez, Alatrista, Lapitzen. Askok, garai batean behintzat, lurrak, baratzeak eta larreak zituzten inguruan, baina orain etxebizitzez inguraturik daudenez, ezinezkoa da horietan lurrak ematen duenetik bizitzea. Asko dira egun hiri sarean integratuta dauden baserriak, etxebizitza soil bezala.

> “Denetik izan dut bide luze honetan, aberasgarria izan da, eta beraz, ea emaitza txukuna izatea ere lortzen dugun”

Eta zergatik proposatu diguzu elkarrizketa kokapen honetan egitea?
Leku polita izateaz gain, hemen atzean dugu Errotaberri eraikina, duela gutxi berritua izan dena eta garai batean errota izan zena. Eraikina mantendu da eta jendea bizi da, beste hainbat etxetan gertatu den bezala, esaterako, Txikillo edo Larreaundin, jada ez dutelako baserri funtzioa. Bestetik, Beraun jauregia dugu, baserria izateaz gainera, tolarea zuten eta sagardoa eta txanpain-sagardoa ere ekoizten zuten. Horrelako eraikinak ikusita, desagertutako edo itxuraldatutako baserri eta errotak jendearentzat hausnargai bihurtzea lortu nahi dut, hemen aurretik zer egon zen imajinatzeko gai izan daitezen.

Bekara aurkeztutako proiektuak izenburu luze zein berezia du. Zergatik izendatu duzu horrela?
Izenburu apur bat poetikoa jarri nahi izan diot, aurreko liburuan egin nuen bezala, jendearen arreta erakartzeko. “Ikusten duzu goizean” izenburua kantu ezagun baten hasiera da, Joan Batista Elizanburu saratarrak idatzitakoa eta nik adibidez oso gustuko dut Iparraldeko 28 kantarik grabatutako bere lanen antologiako bertsioa. Izenburu aproposa iruditu zitzaidan, naiz eta ez dudan kantuak erakusten duen mundu idilikoa azaltzea bilatzen, errealitatea ez baita inoiz guztiz idilikoa izan. Hortaz, kontraste hori bilatzen nuen izenburu idiliko horrekin, egungo egoeraren eta datorren etorkizun gordinaren arteko hitz-jolas gisakoan.

Erraza izan al da gaia ikertzeko dokumentazioa eta testigantzak topatzea?
Erraza ez, baina bai gustagarria, ordea, lanaren emaitza eskuratu ondoren bereziki. Horretarako hainbat tresna erabili ditut, Irungo Artxiboa tarteko; bai bertara joanda kontsultak egiteko eta baita interneten dituen dokumentuak aztertuz ere. Funts historikoa ere kontsultatu dut, bertan agertzen diren agiriak, planoak eta baserri edo etxeak eraikitzeko edo obrak egiteko baimenak kontsultatzeko. Funts grafikoei dagokienez, oso argazki funts aberatsa lortu dut eta hori ere baliatu dut, baita hainbat liburutatik argazkiak hartuta ere. Jose Mari Castillok ere argazki pilo bat pasatu dit. Argazkietan argi eta garbi ikusten da batez ere nolako aldaketa izan den Irungo paisaian, erabatekoa izan baita, beste toki batzuetan gertatu den bezala.

Zuk topatutako materialaz gain, egin al dezake jendeak bere ekarpenik ikerketa osatzeko?
Bai. Izan ere, ikerketa egin eta entregatzeko epea 2027ko irailean amaitzen da. Gauzak horrela, oraindik badago denbora testigantza berriak jaso edo etxeko ganbaran galdutako dokumentu horien kopia bat egiteko. Eta argazkien kasuan berdin. Egia da, gehiago interesatzen zaidala baserrien kasuan, ez soilik eraikin hutsa agertzea, baizik eta inguruan jendea, abereak, azienda edo baratza agertzea, izan ere beste ukitu bat ematen diote; beste bizitasun bat. Orduan beraz, eskertuko nuke horretarako jendea nirekin harremanetan jartzea. Nahi izanez gero, irungo.urrea@yahoo.com emailera bidali daitezke argazkiak edo dokumentuak.

Eta behin lana eginda, zein izango da honen guztiaren emaitza?
Emaitza liburu bat izango da, baina oraindik ez dakit zein tamainakoa. Espero dut, batez ere, argazkien aldetik, baserri bakoitzaren fitxan bi edo hiru argazki jartzea, lehengoa, oraingoa eta ahal bada eraikineko xehetasunen baten argazkia. Beraz, irudien aldetik muga bat jarri beharko da, noski, baina behintzat hori egin ahal izatea espero dut, liburuak ahalik eta emaitza txukunena eta datu gehien izan ditzan.

IRUNGO HERRITARREK PARTE-HARTZE ERREKORRA HAUTSI DUTE 2027KO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEETAN

Irungo Hiriak mugarri berri bat ezarri du herritarren partaidetzaren alorrean. 2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuak orain arteko errekor guztiak gainditu ditu, urriaren 2tik 6ra bitartean egindako bozketan. Guztira, 12.651 boto bildu dira prozesu orokorraren eta gazteentzako atalaren artean, 3.063 herritarren bidez.

Botoak emateko sistema digitala Irun Txartelaren bidez ezarri zenetik, 2017an, ez da inoiz horrenbesteko parte-hartzerik ikusi. Datu hauek % 26,8ko gorakada adierazten dute boto kopuruan eta % 27,4ko hazkundea parte-hartzaileen zenbatekoan, aurreko urteko datuekin alderatuta, herritarren inplikazio handiaren erakusgarri.

Udalak 1,5 milioi euroko aurrekontu saila bideratuko du prozesu honetatik jaiotako proiektuak gauzatzeko. Zenbateko orokor horretatik, 1,3 milioi euro prozesu orokorrerako gordeko dira, eta gainerako 200.000 euroak 16 eta 30 urte arteko gazteen proposamenei erantzuteko erabiliko dira.



Prozesu orokorra eta gaztea

Prozesu orokorraren esparruan 11.582 boto bildu dira guztira, herritarren lehentasunak argi geratuz. Boto gehien jaso dituen proposamena hiriko kiroldegien mantentze lana hobetzea izan da, 989 botorekin eta 200.000 euro inguruko kostuarekin. Ondoren, San Miguel eta Anaka artean aire zabaleko igerilekuak instalatzeko proiektua idaztea izan da bigarren aukeratua, 973 botorekin. Horiekin batera, hauek dira herritarrek lehenetsi dituztenak: hiriko argiteria hobetzea (945 boto), bertako zuhaitzekin berdegune berriak sortzea (859 boto) eta hainbat parketan bideozaintza kamerak jartzea (845 boto). Beste egitasmo batzuen artean, espaloiak hobetzea, auzoetako kultur jarduerak bultzatzea eta San Martzial-Txingudi eremuko igerilekuak handitzeko proiektua idaztea ere onartu dira. Antzaran, Alberto Anguera plaza, Hondarribia kalea eta Lucas de Berroa kaleko parkeetan bideozaintza kamerak jartzeko proposamenak 845 boto izan ditu eta hiriko espaloiak hobetzeko ekimenak, berriz, 775 boto lortu ditu. Azkenik, auzo elkarteek proposatutako kultur jarduerak antolatzeko egitasmoak 756 boto bildu ditu. San Martzial – Txingudi kirolguneko igerilekuak handitzeko proiektua idazteak 721 boto jaso ditu eta Aduana kalean bideozaintza kamerak instalatzeko proiektuak 611 boto.




Gazteen atalak harrera bikaina izan du aurten ere, guztira 1.069 boto bilduta eta parte-hartze oso dinamikoa erakutsiz. Gazteen artean lehen postua Elektroplaza 2027 festibalak lortu du, 118 boto bilduta. Ondoren, berbenak antolatzeak 108 boto jaso ditu, eta gazteentzako kontzertu, podcast zein proposamen eszenikoen egitasmoak 95 boto bildu ditu. Horiez gain, coliving modalitateen inguruko azterketa bat egiteak 88 boto, eta aisialdi eta prestakuntza arloan, udako jarduerak —hala nola uretako motoak, coasteeringa eta surfa— aukeratu dira 82 botorekin. Kiroldegietako aldagelak hobetzea 72 botorekin eta 18tik 30 urtera bitarteko gazteentzako tailer gehiago antolatzea —sukaldaritza, sexualitatea zein literatura arloetan— 69 botorekin 2027ko aurrekontuetan sartu dira.

Bestalde, herritarren babesa jaso duten arren, proposamen batzuk kanpoan geratu dira bideratutako aurrekontu mugatua amaitu delako. Esaterako, haurrentzako parkeak naturalizatzea eta klima-aldaketara egokitzea xede zuen egitasmoa, euskarazko jarduera gehiago antolatzea edo kirol instalazioak hobetzeko beste hainbat proposamen. Gazte aurrekontuen kasuan, aurrekontuetan sartzetik gertu geratu dira, Gazteentzako Irun Zuzenean, Irungo bertako edo inguruko talde gazteen musika festibala, Aisialdiko begirale izateko ikastaroa edo mendiko hondakinen gaikako bilketa. Dena den, herritarrek Udalaren proposamenak onartuz erantzun dute, hiria irisgarriagoa, jasangarriagoa eta biziagoa egiteko bidean urrats sendoak eginez.

DENBORA-PASAK

Gurutzegrama: Munduko leku ospetsuak



Horizontal

1- Egipton dagoen gizaki-burua eta lehoi-gorputza dituen monumentu erraldoia.
3- Atenasko goialdean dagoen antzinako monumentu multzoa
6- Jordaniako harkaitzetan zizelkatutako antzinako hiria

Bertikal

2- Ingalaterran dagoen historiaurreko harrizko monumentu misteriotsua.
4- Granadan dagoen jauregi eta gotorleku multzo historikoa.
5- Vesubio sumendiaren erupzioak lurperatutako antzinako hiria.

6 Hitz: Euskal mendiak

A	N	B	O	T	O	I	T	Z	I	A	A	I	I	K
R	K	E	I	R	A	L	D	F	I	K	E	K	Q	I
A	L	I	A	C	B	T	O	E	Y	I	R	I	R	R
I	K	V	R	A	E	I	B	L	I	I	N	C	C	Q
Z	Q	D	A	R	K	R	D	K	W	H	T	J	T	E
K	R	I	K	Z	O	B	R	I	Y	F	L	L	F	I
O	I	H	P	G	R	L	A	A	K	P	E	M	K	R
R	I	Z	W	S	B	R	F	I	A	B	L	C	G	L
R	Z	H	C	O	E	K	Z	B	I	X	R	E	F	A
I	M	U	O	I	J	N	K	K	O	G	V	B	U	R
J	A	E	T	O	U	G	Z	A	T	Q	L	E	O	R
I	Q	K	Y	K	T	I	O	P	P	D	R	T	K	U
U	A	I	I	I	A	W	D	L	I	A	N	T	S	N
S	X	I	Y	J	N	K	S	Z	M	N	G	I	O	B
R	R	L	T	X	I	N	D	O	K	I	Y	I	G	I

- Anboto
- Aizkorri
- Txindoki
- Gorbeia
- Jaizkibel
- Larrun

IRUNABAR

ZERRENDAN ORAINDIK

Doinua: Gure herri txiki hau da
Egilea: Josu Laguardia Igiñitz

Mundua jira eta jira...
AEB, Israel, Txina...
Belatzen estrategia,
usoentzako medizina.
Heriotza aiseagoa da,
aurrez jarrita morfina;
Ikusgarriagoa baina,
bada nitroglizerina.
Zertarako daude eskolak?
Zertarako sanedrina?
Zer irakasten da bertan?
Soilik gerrako doktrina?
Nola bihurtzen da norbait
erahiltzeko makina?
Belatzen soroetan, zurtz...
hilzorian, Palestina.

Batzuk, doktrinaz doktrina;
beste batzuk, tranpaz tranpa.
Palestinatik urruti, Trump
bere hamakan etzanta.
Bero dagoenean,"ice-cream",
fresko dagoenean, manta...
Eta asperdura uneetan,
hautatu nori egin "zanpa".
Venezuela, Iran, Yemen,
Palestina... a zer txanpa!
Bere gozagarrirako,
odolustu, tantaz-tanta...
"Nola zaude gaur, Benjamin?
Zure estarriko marranta?
Gaur Gazako zer tokitan
nahi duzu kolpe galanta?"

"Donald, kolpea izan dadila
bortitza bezain azkarra.
Ikas dezaten betiko
munduan nork duen indarra.
Zabal bedi Palestina
osoan Daviden izarra.
Gaza banatuko dugu
bi zatitan, lagun xarra.
Zuk aukeratu aurretik
non jarriko dugun marra.
Nik nahiago dut hegoa,
eta zuretzat, iparra.
Gure negozietarako
ez da banaketa txarra.
Zerrenda hau ez da izango
sekula Palestinarra!"

Dagoeneko hiru urte dira
hasi zela bonba jasa.
Han ez da ezer geratzen...
ez etxe, ez kale, ez plaza.
Ez genuen usteko har
genezakeenik arnasa
basakeria horren aurrean.
Ez da, ez, ulerterraza.
Nolatan han heriotza den
bizilagunen jolasa.
Nolatan zoratzeraino
ez den lehenestsi solasa.
Nolatan belatzen esku
zokoratu dugun Gaza.
Nolatan gure erantzuna
izan den horren eskasa.

Erantzunak webgunean:
www.irunero.eus/denborapasak/

KIROLAK

BIDASOA KLUBAREN EMAKUMEEN SENIOR TALDE BERRIA, ETORKIZUNEKO HARROBIARI ATEAK IREKITZEKO PROIEKTUA

Bidasoa Kirol Elkarteak aurtengo denboraldian lehen aldiz atera du emakumeen senior mailako talde bat, Alkain Bidasoa Irun. Hain zuzen ere, lehiaketan ari da dagoeneko eta jokatu ditu jada denboraldiko lehen partiduak. Eñaut Uruñuelak, Bidasoa klubeko emakumeen arloko arduradunak, emakumeak kirolera gerturatzeko proiektu berri honen inguruko xehetasunak azaldu dizkigu.

Azken urteetan behin baino gehiagotan entzun dugu klubean emakumeen senior taldea sortzeko asmoa zegoela eta iritsi da azkenean momentu hori. Nolakoa izan da prozesua?
Aipatu duzun moduan, pare bat urte eman ditugu Bidasoa klubean eskubaloiko nesken senior taldea atera nahian. Orain arte zaila izan da, behin kategoria horretara iritsita, neskek ez zutelako jokatzen jarraitzeko talderik. Ondorioz, eskubaloian aritzen jarraitzeko beste talderen bat bilatu behar izaten zuten. Pasa den urtean hasi ginen jada proiektua martxan jartzeko ahaleginean. Neska talde batekin hitz egiten aritu gara horretarako, proiektura batuko ote ziren jakiteko, eta baita klubean jada bazeuden beste batzuekin ere. Horrela, aurten senior mailako nesken talde bat sortzea lortu dugu eta ligan parte hartzen hasi gara.



Bidasoa taldeak aurretik bazituen nesken taldeak beste maila batzuetan, baina senior taldea falta zen. Maila txikiagoetan jada neskak edukitzeak bidea erraztu du?
Gehienbat Irun eta Hondarribiko neskekin osatu dugu taldea. Talde hau sortu aurretik, bagenituen jada nesken taldeak haur, kadete eta gazte mailetan eta baita eskolan ere, eskubaloian aritzen diren neska txikiak ere bai baititugu dagoeneko. Talde berri hau osatzen duten neska gehienak aurretik klubean aritutakoak dira. Hala ere, badira kanpokoak diren pare bat neska, ikasketa edo lan kontuengatik orain hemen inguruan bizi direnak eta gurekin harremanetan jarri zirenak taldera batzeko.

Klubarentzat ona da senior mailan emakumeen talde bat edukitzea, nolabait, talentu horrek Bidasoatik alde egin ez dezan, ezta?
Egia esan, klubarentzat aurrerapauso bat izan da talde honen sorrera. Aurreko urteetan kadete eta gazte mailetan izan ditugun taldeak nahiko ondo ibili dira, Espainia mailan eta Euskadiko maila gorenean jokatzera iritsi direlako. Pena da maila horietan ondo ibili ostean gero senior mailan jokatzeko aukerarik ez izatea. Mailaz maila kategoria berriak sortzen saiatu gara, eta gauzak horrela, orain gazte mailan daudenak datorren urtean senior kategoriara igaro ahal izatea espero dugu, pixkanaka bloke oso bat sortzeko.

> "Gehienbat Irun eta Hondarribiko neskekin osatu dugu taldea"



> "Egia esan, klubarentzat aurrerapauso bat izan da talde honen sorrera"

Emakume talde hau sortzea kluba hazteko beste bide bat da.
Nik beti aipatu izan dut, larunbatean lehen taldea ikustera etortzen zarenean neska asko ikusten dituzula kamisetarekin edo partidua ikusten. Baina bai nabari da horietako askok ez dutela klubean jokatzen. Beraz, nesken senior taldea edukita, haiek erreferentetzat hartu ditzakete. Agian horrela, emakume edo neska gehiago animatu daitezke eskubaloian aritzera, klubean jokatu ahal izateko aukerarekin.

Hori da, jada klubean dauden neska txikientzako erreferenteak izan daitezke, ezta?
Nire ustez, hori da ideia. Jendeak ikustea hemen senior neskek eskubaloian jokatzeko aukera dutela. Horrela, txikiagoak direnek beraiek ere bertan jokatu nahi dutela edo haiekin batera jokatu nahi dutela pentsatu dezakete. Adibidez, neskaren bat entrenatzaile bezala sartuz gero, ba berarekin entrenatzeko gogoa ere izan dezakete. Beraz, nire ustez, hori sustatzen saiatu behar gara. Aurrerapauso bat bada behintzat talde honen sorrera lortzea.

Aurten ateratako talde berri hau zein mailatan lehiatzen ari da orain?
Gipuzkoa mailako txapelketaren barnean, bi talde daude. Talde sortu berria denez eta lehiaketan lehen urtea dugunez, gu bigarren mailan sartu gara. Orain arte, denboraldiaren lehen zati honetan 3 partidu jokatu dituzte eta hiru horietan garaipena lortu dute. Ondorioz, oso pozik daude egindako lanarekin.

Taldea berria izate horrek motibazio eta gogo gehigarria ematen diela esango zenuke?
Bai, ez haiek bakarrik, gu guztiok oso kontent gaude egiten ari diren lanarekin. Aurrerantzean, espero dugu bide beretik jarraitzea.

Orokorrean, zeintzuk dira taldearen helburuak, bai emaitza eta baita kirol aldetik ere?
Jakin badakigu hasierak zailak izaten direla, beraz, saiatu behar gara pixkanaka-pixkanaka aurrera egiten. Noski, saiatu behar gara, gure gaitasunen barruan, ahalik eta hoberen egiten eta argi dago hori gure helburua izango dela. Poliki-poliki aurrera egiten jarraitu nahi dugu, apurka-apurka mailaz igo eta atzetik datozen jokalariekin zer egin dezakegun ikusteko.

Orain sortutako talde berri hau, ba al da etorkizunera begirako urratsa ere, hau da, epe luzera egin nahi den apustu bat?
Bai, hori da. Hau ez da urte bat edo bira begira sortu den zerbait. Talde hau sortzeak lan bat izan du atzetik eta orain ezin dezakegu bat-batean galtzera bota. Lortutakoa aurrera eramaten saiatuko gara, poliki bada ere, atzetik datozen belaunaldi guztiek bertan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Behin proiektua sortuta eta ezagutzera emanda, ba al dago oraindik talde berri honetara batzeko edo eskubaloia probatzeko aukerarik? Zalantzan egon daitezkeen horiei begira.
Gu klubean jende berria jasotzeko guztiz irekita gaude eta edonork eskubaloiaz gozatu ahal izatea nahiko genuke. Beraz, norbaitek kirol hau probatu nahiko balu, gurekin harremanetan jarri beharko luke. Horrela, gurekin jokatuz eta jolastuz ondo pasatu daitekeela deskubrituko luke.

> "Agian horrela, emakume edo neska gehiago animatu daitezke eskubaloian aritzera, klubean jokatu ahal izateko aukerarekin"





KIROLAK

BIDASOA ESKUALDEAK BAT EGINGO DU AZAROAREN 22AN INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO MUGAZ MUGA TRIATLOIAN

Bidasoa ibaiak ez ditu soilik lurraldeak bereizten, herritarren arteko lankidetzarako eta bizikidetzarako eremu aberats bat ere osatzen du. Testuinguru honetan jaio da Mugaz Muga 2026, azaroaren 22an Hendaia, Irun eta Hondarribia lotuko dituen triatloi solidario eta feminista. Txingudiko Elkarte Feministak, Emeki Elkarteak eta Hendaia Uretan elkarteak elkarlanean antolatutako proiektu hau 16 urtetik gorako emakumeei zuzendutako kirol ekimen ez-lehiakorra da, eta proba guztiak errelebo bidez egiteko aukera eskaintzen du.

Ekimen honen helburu nagusia kirola sentsibilizaziorako eta eraldaketa sozialerako tresna bihurtzea da indarkeria matxista bistaratuz eta gaitzetsiz, eta, aldi berean, berdintasuna, emakumeen ahalduntzea zein adin eta kultura ezberdinetako pertsonen arteko bizikidetza sustatuz. “Emakumeak eta hiru hiriak batzeko ekitaldi bat egin nahi izan dugu, kirolarekin lotura duena”, azaldu du Miren Eizaguirrek Hendaia Uretan elkartearen izenean. Izan ere, azaroaren 25aren inguruan, Emakumeen Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunean, gizarte osoa sentsibilizatu nahi dute. “Ohikoa izaten da emakumeak, beren zereginen ondorioz, beren buruaz ahaztea, beraz, garrantzitsua da kirolarekin ere hori ez gertatzeko inguruan kirol talderen bat edukitzea edo ekintzak izatea” aipatu du Txingudiko Elkarte Feministako Elena Serranok. Tamara Sastre, Hondarribiko Emeki elkarteko kideak gaineratu duenez, Txingudiko Elkarte Feminista izan zen egitasmo hori antolatzeko urratsa egiten lehena eta gainontzekoak xaxatzen aurrena.



Ibilbideari eta antolaketari dagokienez, parte-hartzaile bakoitzak hiru modalitate hauetatik bat, bi edo hirurak egin ditzake: lehenik, 2 kilometroko uretako senderismoa edo ibilbidea Hendaiako hondartzan; ondoren, 15 kilometroko txirrindularitza saioa Hendaiatik Hondarribiraino; eta, azkenik, 5 kilometroko korrika saioa Hondarribian. “Hasiera batean taldeka edo soilik bakarka egiteko aukera aztertu genuen, baina konturatu ginen parte-hartzaile bakoitzak zenbat proba egin nahi dituen aukeratuz gero, parte hartzeko aukerak askoz gehiago zabaltzen zirela”, adierazi du Emeki elkarteko Tamara Sastrek. Horrela, bakoitzak erabaki ahal izango du triatloian zenbat proba egin nahi dituen; denak edo batzuk soilik.

Mugaren bi aldeetako hiru elkarteek euren gaitasunak bateratu dituzte: Hendaia Uretan elkarteak uretako zatia koordinatzen du, Txingudiko Elkarte Feministak lasterketa eta sentsibilizazio ekintzak kudeatzen ditu, eta Emeki Elkarteak helmugan eta amaierako jardueretan hartzen du parte bereziki. Hau da, laburbilduz, bakoitza bere hirian arduratuko da triatloiaren antolaketaz. “Udaltzainen aholkularitza izan dugu froga prestatzeko, eskualdean hainbeste kirol proba egiten direnez, ibilbidea prestatzen eskarmentu handia baitute”, erantsi du Tamara Sastrek. Izan ere, boluntarioek ere, paper garrantzitsua izango dute probaren egunean, ekitaldiaren antolaketa egokia bermatu eta aldarrikapena behar beste zabaldu dadin.

> **“Emakumeak eta hiru hiriak batzeko ekitaldi bat egin nahi izan dugu, kirolarekin lotura duena”**
> *Miren Eizaguirre, Hendaia Uretan elkarteko kidea*





Horretaz gain, egitasmoaren lehen edizioa izanik, biziki eskertu dute babesle aldetik ere jaso duten laguntza, esaterako, Eroskiren, Pasquierren, Kaikuren eta Egarri Edarien babesletza jaso dute, baita eskualdeko hiru udalen laguntza ere. Esker hitzak izan dituzte Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoarentzat ere, bertatik emandako diru laguntza bati esker aterako baita aurrera proiektu hau. Orokorrean, antolatzaileak pozik azaldu dira bidean ukitutako ateak zabalik aurkitu izanagatik.

Kiroletik indarkeria matxistaren aurka

Antolakuntzakoek azaldu dutenez, proba ez lehiakor bezala prestatzea erabaki dute, helburua ez baita kirol lehiaketa bat antolatzea; jada kirol proba asko egiten baitira eskualdean. “Gure nahia aldarrikapena egitea da, kirola egiten dugun bitartean”, aipatu du Elena Serranok. Gainera, izen-emate, kamiseta salmenta eta dohaintzen bidez lortutako irabaziak osorik bideratuko dira Irungo Bizibidean Elkartera eta Hendaiako Bagerara, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntza eta babesa emateko egiten duten lana sustatzeko. Beraz, proban bildutako diru guztiak helburu solidarioa izango du, indarrak batu eta aldarrikapena egiten den bitartean.

Proiektu honek erantzuna ematen dio Bidasoaren bi aldeak zeharkatzen dituen errealitate sozial gogor bati: indarkeria matxistari. Izan ere, 2026ko datu ofizialek erakusten dute egiturazko arazo honek ez duela muga administratiborik ezagutzen. Mugaz Muga, izenak berak adierazten duen bezala, mugak gainditu nahi dituen proiektua da. “Indarkeria matxista eta emakumeen aurkako indarkeria hiru hirietan gertatzen da eta Emakundek urtero argitaratzen dituen datuek erakusten dute halako erasoak egunero izaten direla, nahiz eta soilik larrienak iritsi komunikabideetara”, aipatu du Emeki elkarteko Tamara Sastrek. Portzentaje horiek handitzen doazen bitartean, eskualdeko hiru elkarte hauentzat oso garrantzitsua da elkarrekin egoera hau sozialki salatzeko zerbait egitea. Hendaia Uretan elkarteko Miren Eizaguirre ordezkariak azaldu duenez, “Mugaz Muga azaroaren 25aren inguruan antolatutako ekimen feminista, solidario eta parte-hartzaile batetik jaiotzen da”.

Erantzun kolektiboa

Gizarte eta komunitate mailan, Mugaz Muga 2026 ekimenak herritarren parte-hartzea eta gune publikoa erantzun kolektibo zein ikusgarri bihurtu nahi ditu. Bertan parte hartu nahi dutenek hainbat bide izango dituzte aukeran izen-ematea egiteko. Elena Serranok aipatu duenez, elkarteen sare sozialetan eta kaleetan proba iragartzeko sortu eta itsatsi diren karteletan aurkitu daiteke izen-ematea egiteko esteka, QR formatuan: “izen-ematea egitea oso erraza da, zure datuak bete eta zein probetan parte hartuko duzun zehaztu behar duzu soilik. Horrela beraz, jende askok parte hartzea espero dugu”.

Ondorioz, Mugaz Muga ez da kirol jarduera huts batera mugatzen; gizarte mobilizazio feministako tresna indartsua da. “Momentu honetan garrantzitsua da emakumeek kirola eroso eta segurtasunez egiteko espazioa sortzea, eta beraz, probak hiru kirol barne-hartzen dituenez, uste dugu harrera ona izango duela”, gaineratu du Miren Eizaguirrek. Indarkeria matxistaren aurrean, gizarte antolatu, plural eta berdintasunarekin konprometitu bat badagoela erakutsi nahi du.

Bidasoa eskualdeko kaleak aldarrikapengune bihurtuko dira, parte-hartzaile bakoitzak emakumeen aurkako indarkeria mota guztien kontrako mezu bateratua zabalduz eta berdintasunean nahiz errespetuan oinarritutako gizarte baten eraikuntzan lagunduz. Probaren egunari begira, Miren Eizaguirrek aipatu du hiru hirietako emakume asko elkartzea gustatuko litzaiokeela, “elkarrekin kirola egiteko egun ona partekatzeaz gainera, eguraldia lagun izanda, denok ekitaldiaz batera gozatzeko”. Tamara Sastrek berriz, lehen urrats gisa ikusten du Mugaz Mugaren lehen edizio hau, “aurrerantzean elkarlanean horrelako proiektu gehiago ateratzea espero dugu, elkarrekin gauza politak egin daitezkeelako”. Elena Serranok ere partekatzen ditu gainontzeko antolatzaileen nahiak, “aurten jende asko erakarri eta hurrengo urteetara begira zerbait handiagoa egin ahal izateko”. Hain zuzen ere, Serranok azpimarratu duenez, “elkarrekin gehiago gara eta indar handiagoa egin ahal izango dugu”.

> **“Aurrerantzean elkarlanean horrelako proiektu gehiago ateratzea espero dugu, elkarrekin gauza politak egin daitezkeelako”**
> *Tamara Sastre, Emeki elkarteko kidea*

BETI GAZTE

DJ AIMAR: “ETENGABEKO LANA DA, DENBORA ETA BATEZ ERE PASIO HANDIA ESKATZEN DUENA”

DJ Aimar ari da dagoeneko bere lekua egiten musika elektronikoaren munduan, etxetik hurbil zein urrunagoko hainbat eszenatokitan ere bere pasioa eta soinua zabalduz. N97 proiektuari esker eta Deep House, Tech House eta House estiloen bidez publikoarekin konexio berezia sortzea lortu du. Elkarrizketa honetan, irundarrak bere ibilbidearen lehen urratsak, saio bakoitza prestatzeko egiten duen etengabeko lana eta eskualdeko musika elektronikoaren egoera aztertzen ditu.



Nola gogoratzen dituzu musika elektronikoan egindako lehen urratsak?
Txikitatik izan dut musikarekiko pasio handia. Horrek musika elektronikoa ezagutzeko aukera eman zidan, eta, pixkanaka, genero honetan sakontzen eta mundu hau deskubritzen joan naiz, gaur egun arte.

Nolakoa izan da N97rekin musika ibilbideari ekitea?
Egia esan, oso bide polita izan da. Duela urte batzuk hasi zen dena, Jota eta Irune ezagutu nituenean. Haiek ateak ireki zizkidaten gustuko dudan horretan aritzeko eta, denborarekin, lehen ezinezkoa iruditzen zitzaidan zerbait eraikitzen joateko. Oso eskertuta nago eman didaten aukeragatik, eta ilusio handia egiten dit proiektu hau barrutik hazten ikusteak.

Zure soinua deep house, tech house eta house estiloen artean definitzen duzu. Nola lortzen duzu zeure nortasuna ematea saio bakoitzean?
Benetan gustuko duzun zerbait egiten duzunean, plazer hutsez egiten duzu, eta ahalegina ere bestelakoa da, hainbeste gustatzen ez zaizkizun gauzekin alderatuta. Etengabe musika berria entzutea asko gustatzen zait, eta beste artista batzuei erreparatzeak asko laguntzen dit, bai belarria lantzeko, bai teknika hobetzeko. Horrela, pixkanaka, gero eta zehatzagoa izaten saiatzen naiz, nire estiloa eta nortasuna saio bakoitzean islatuz.

> “Harro nago ikusteaz nola musika elektronikoa, inoiz baino gehiago, merezi duen lekua hartzen ari den hemen, N97k ate pila bat ireki du, lehen ireki ezinak ziren ateak”

Irundarra izanda, nola ikusten duzu musika elektronikoaren egoera eskualdean?
Harro nago ikusteaz nola musika elektronikoa, inoiz baino gehiago, merezi duen lekua hartzen ari den hemen, N97k ate pila bat ireki du, lehen ireki ezinak ziren ateak. Guretzat, musika elektronikoa jendea batzen duen kultura da, eta kultura hori zabaltzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Baita oraindik aukerarik izan ez duten pertsonei beren talentua erakusteko eta merezi duten lekua aurkitzeko aukera ematea ere.





> “Helburua ez da musika jartzea bakarrik; saio bakoitzak zerbait transmititzea, sentsazioak sortzea eta publikoarekin konektatzea bilatzen dut”

Nolakoa izan da Gazteria Zerbitzuaren «Konekta Sessions» egitasmoan parte hartzea?
Plazer handia da horrelako ekitaldietan parte hartu ahal izatea, eta beti nago eskertuta horretarako aukera dudanean. Lehen esan dudan bezala, musikarekiko dudan maitasunagatik egiten dut hau, eta horrelako ekitaldien bidez pasio hori erakusteko eta besteekin partekatzeko aukera dut. Gainera, uste dut horrelako plataformak ezinbestekoak direla tokiko talentu gazteari ikusgarritasuna emateko eta artista berriei bidea errazteko.

Eszenatokira igo aurretik, nola prestatzen dituzu zure emanaldiak?
Etengabeko lana da, denbora eta batez ere pasio handia eskatzen duena. Nire kasuan, egunero entzuten dut musika, eta urteak aurrera joan ahala konturatzen zara belarria ere nola doan heltzen eta lehen oharkabean pasatzen zitzaizkizun xehetasunei gero eta arreta handiagoa jartzen diezula.

Horrez gain, etxean ere praktikatzen dut deskubritzen dudan musika guztiarekin. Ekitaldi bat hurbiltzen denean, joko dudan ordutegian eta espazioan jartzen dut fokua, hautaketa ahalik eta egokiena izan dadin. Helburua ez da musika jartzea bakarrik; saio bakoitzak zerbait transmititzea, sentsazioak sortzea eta publikoarekin konektatzea bilatzen dut.

Azaroaren 7an, CBAko Irun Zuzenean aretoan arituko zara Juicy Bae nazioarteko artistaren ondoan. Zer sentitzen duzu aukera horren aurrean?
Beti da pozgarria horrelako ekitaldietan parte hartzea. Niretzat aukera handia da, eta motibazio gehigarria ere bai, DJ gisa hazten jarraitzeko, publikoarekin konektatzeko eta musikaren bidez nire esentzia transmititzeko.

Zure aldetik, musika elektronikoaren zein aldaera erabiliko dituzu gau horretako giro berezia sortzeko?
Nire asmoa saio dinamiko bat sortzea da, musika elektronikoaren barruko estilo eta soinu desberdinekin jolastuz. Une bakoitzean dagoen giroaren eta publikoaren energiaren arabera egokitu nahi dut saioa, energia hori irakurriz eta musikaren bidez harekin konektatuz.

Etxean, Irunen, eta horrelako kartel indartsu batean parte hartzeak presioa ala motibazio gehigarria sortzen dizu?
Motibazio gehigarri gisa bizi dut, nahiz eta ekitaldi bakoitzaren aurretik sentitzen dudana antzekoa izan: nire onena emateko eta esperientziaz gozatzeko gogo handia. Gainera, etxean aritzeak, Irunen, beti du zerbait berezia. Ilusio handia egiten dit nire herrian horrelako ekitaldi batean parte hartu ahal izateak.

Azkenaldian esperientzia handiak pilatzen ari zara musika elektronikoa ezagutarazteko. Zein izan da orain arte oholtza gainean bizitako unerik bereziena?
Oso pozik nago orain arte parte hartu dudan ekitaldi guztietan aritzeko aukera izan dudalako. Hala ere, aurtengo uztailean Zumaian egin zen Dantz Point esperientzia ikaragarria izan zen. Oso data berezia izan zen, bai sortu zen giroagatik, bai bertan bizitako guztiagatik ere. Bereziki gogoratzen dudan ekitaldietako bat da, eta oroitzapen polit gisa gordeko dut beti.

Gaur egun, DJ saioez gain, ba al duzu epe laburrean zure musika propioa ekoizteko edo diskoetxe batekin lan egiteko asmorik?
Bai, noski! Epe laburrean esploratu nahiko nukeen zerbait da. Musika ekoizpenaren munduan murgiltzeko, ikasteko eta nire soinu propioa aurkitzeko gogo handia dut. Uste dut nire musika sortzeak modu pertsonalagoan adierazteko aukera emango lidakeela, nire ikuspegi musikala transmititzeko eta DJ gisa lantzen ari naizen proiektua beste maila batera eramateko.

Nora iritsi nahiko luke Aimar DJak hemendik hamar urtera?
Galdera zaila da hori! Egia esan, musika egunez egun bizi dut, eta ez zait gehiegi gustatzen hamar urte barru zer gertatuko den pentsatzen aritzea. Nahiago dut bideaz gozatu, ikasten jarraitu eta sortzen diren aukera guztiak aprobetxatu. Jakina, gustatuko litzaidake musikak nire bizitzako parte izaten jarraitzea, DJ gisa hazten jarraitzea, leku berrietara iristea eta musikaren bidez gero eta jende gehiagorekin konektatzea. Azken batean, nire ametsik handiena gustuko dudana egiten jarraitu ahal izatea da, denborarekin eboluzionatzea eta musikak noraino eramaten nauen ikustea.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

GRAFFITI TAILERRA



Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta, Artia eta Martindozenea Gaztelekuek elkarlanean Graffiti Tailer Berezi bat antolatu dute azaroaren 19an, osteguna, 17:30etik aurrera Martindozenea Gaztelekuan.

Ekimena 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta sprayen, koloreen zein sormenaren bidez beren pentsamenduak adierazteko eta nerabeen eskubideei ahotsa emateko aukera bikaina izango da, ez baita ezinbestekoa aurretik esperientzia izatea.

Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete dagoeneko: Artiatik bazatoz, izena emateko edo informazio gehiagorako Gaztelekuan bertan, whatsappez (681946798), Instagramez (@gazteleku__artia) edo postaz (gazteleku_artia@irun.org) jar zaitezke harremanetan (kontuan hartuta Mugi txartela edo autobuserako dirua eraman behar dela); Martindozeneatik bazatoz, aldiz, izen-ematea Gaztelekuan, 690706471 whatsappean, @gazteleku_martindozenea Instagramen edo gazteleku@irun.org helbidean egin daiteke.

ESCAPE ROOM: SORGINAK, HISTORIAREN PURGA



Datorren azaroaren 25ean, asteazkenarekin, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, Martindozenea Gaztelekuak gaiari ikuspuntu berri batetik heltzeko “Sorginak historiaren purga” escape room berezia antolatu du.

Ekimen horretan parte-hartzaileak etorkizuneko historialari bihurtuko dira, historia ofizialak baztertutako emakume jakintsu eta independenteen egia berreskuratzeko asmoz; saioak doakoak izango dira eta lau txandatan banatuko dira (17:30etik 19:30era bitartean), baina 20 plaza soilik egongo direnez, ezinbestekoa da aurretik izena ematea Gaztelekuan bertan, 690706471 zenbakira whatsapp bat bidaliz, @gazteleku_martindozenea Instagram bidez edo gazteleku@irun.org helbidera idatziz.

15-18 ESPAZIOA



Datorren azaroan ekintzarik ez da faltako 15-18 espazioan, gazteentzako egitarau zabala prestatu baitute: hasteko, azaroaren 7an xake torneo bat antolatuko dute, eta jarraian, azaroaren 14an, fimozko giltzatakoak egiteko tailerra egongo da sormena eta alde artistikoena garatzeko.

Informazio gehiago irun.org/gazteartean webgunean aurki daiteke, eta izena emateko mezua idatzi daiteke konekta@irun.org helbidera edo 656794372 telefonora.

ARAMBURU
ZURE LEIHO-FABRIKATZAILEA IRUNEN - 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU SEKTOREAN.
LEIHO, ATE, BARANDA, PERTSIANA ETA TOLDOAK INSTALATZAILE ONENEN BERMEAREKIN
Gabiria Kalea 42, Irun | (+34) 943 62 22 57 | info@ventanasaramburu.com | www.ventanasaramburu.com

KULTURA

ZURE ABENTURAREN BILA



‘Groenlandia oinez eta kayaken bidez’, Jorge Gorosarri hizlariaren eskutik.

Noiz: Azaroaren 5ean, ostegunean.
Non: Amaia Kultur Zentroan.
Ordua: 19:30ean.
Hizkuntza: Euskaraz.
Sarrera: Doan, aretoaren edukiera bete arte.

TRETATXU, ANITA MARAVILLAS



Anita Maravillas txotxongilo antzerkiari eskainitako konpainia da eta Tretatxu izeneko obra aurkeztera datoz.

Noiz: Azaroaren 6an, ostiralean.
Non: CBA Kultura eta Sorkuntza zentroa.
Ordua: 18:00etan.
Sarrera: Orokorra 10,25 euro eta hobaridunak 7,20 euro.

HAIKA JAZZ QUARTET



Haika Jazz Quartet Musikeneko ikasgeletan sortutako jazz garaikideko taldea da, generoaren tradizioa fusioarekin eta soinu freskoekin uztartzen duena.

Noiz: Azaroaren 14an, larunbatean.
Non: CBA Kultura eta Sorkuntza zentroa.
Ordua: 21:00etan.
Sarrera: Orokorra: 10,25 euro eta hobaridunak 7,20 euro.

IRUN HIRIA MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA



Santa Zezilia, musikaren zaindaria, data seinalatua da musika interpreteen agendan eta musika bandak bere zaindaria ospatzen duen ohiko kontzertua da.

Noiz: Azaroaren 22an, igandean.
Non: Amaia Kultur Zentroan.
Ordua: 12:00etan.
Sarrera: Librea, gonbidapenarekin.

Folder
PAPERDENDA - KOPIADENDA - ESKULAN TAILERRA
Luis Mariano kalea 12 | (+34) 943 63 93 01 | irun@folder.es | www.folder.es

ARAMBURU
ALU & PVC

ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOA DUTEN LEIHOAK

Isolamendu handiagoa.
Zarata gutxiago.



Aluminioa eta PVC



Diseinua, kalitatea eta iraunkortasuna



Konpromisorik gabeko aurrekontua

JARRI GUREKIN HARREMANETAN

Gabiria Kalea 42, Irun
Telefonoa: (+34)943 62 22 57
Email: info@ventanasaramburu.com